

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

0c632502c4de6679b182b870e46ce62beec95dc34b34923f457e62ff846f62cd

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2025EKO URTARRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2025.01.30

Tolosako Udaletxean, 2025eko urtarrilaren hogeita hamarrean, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)
Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)
Josune Sanz Vidal(EH BILDU)
Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)
Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)
Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)
Javier Zabala Sastre(EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)
Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Ez bertaratutako zinegotzia:

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Idazkari akzidentala:

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2024ko abenduaren 23ko ohiko osoko bilkurakoa.
2. Onartzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko kudeaketa-gomendio hau: tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agenteen seigarren deialdi bateratuan sartzekoa.
3. Onartzea zehapen-espeditente bati hasiera ematea Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko enpresa kontratistari, kontratuaren betebeharrak ez betetzeagatik.
4. Onartzea Tolosako Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
5. Onartzea hasiera ematea «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko birpartzelazio-proiektua ofizioz berrikusteari.
6. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2024KO ABENDUAREN 23KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

GAIAREN PREMIATASUNA DELA ETA, UDALBATZAK, 2568/1986 ERREGE DEKRETUAREN 82. ETA 126. ARTIKULUETAN XEDATUTAKOAREKIN BAT ETORRIZ ETA AHO BATEZ ONARTU ONDOREN, HONAKO GAI HAU AZTERTU DU:

2. ONARTZEA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO KUDEAKETA-GOMENDIO HAU: TOKIKO POLIZIAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTEEN SEIGARREN DEIALDI BATERATUAN SARTZEKO.

Osoko bilkurari aurkezten zaion irizpena

IKUSIRIK

I.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako udala jabe dira toki mailan tokiko poliziaren oinarritzko eskalako agente plazak bitarteko izaeraz hornituta daudela hainbat kasutan, eta horiek hornitzea beharrezkoa izaten da zerbitzua modu egoki batean eman ahal izateko.

Honetarako, eta plantilla egonkortzeko asmoz, bai Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta baita Tolosako udalak ere, elkarlanean bultzatu beharko dute Udaltzaingoko Oinarritzko Eskalako deialdi bateratuan hutsik dauden hainbat plaza betetzeko.

II.- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzak eta koordinazio-mekanismo bateratuak behar ditu, hain zuzen, azken horien ekintza-baliabideak optimizatzeko.

III.- Tolosako udalak 2025 urtean lanpostuen zerrendan hutsik dauden udaltzaingoko hiru agente plaza hornitzeko hautaketa prozesua hasi nahi du. Honetarako, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tokiko agenteak hautatzeko, deialdia egiteko eta horiek prestatzeko baliabide tekniko eta azpiegitura nahikoak dituen, Tolosako udalak egokia deritzo tokiko poliziako oinarritzko eskalako behin-betiko izaeraz agente plazak hautatzeko aipatu erakundearekin lankidetzan aritzeko kudeaketa gomendioa sinatzea.

Hori guztia aintzat hartuta, udaleko Udaltzaingoa eta Giza Baliabide sailetik, Tokiko Poliziaren oinarritzko eskalako agenteentzako deialdi bateratuan sartzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako udalaren artean kudeaketa gomendioa izenpetzea proposatu da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren izaera eta xedea

Kudeaketa gomendioa izenpetzea proposatu den erakundearen – **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia** – izaerari dagokionean, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20. artikulua, **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Administrazio-izaerako organismo autonomoa dela xedatzen du eta bere helburuak betetzeko berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela** eta 21. artikulua, **segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia dagoela**.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren helburua herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoak ematen jarduten diren edo parte hartzen duten pertsonen beharrezkoa den lanbide-heziketa eskuratzeko baldintzak eta bitartekoak sortzea da eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere eskaintzea, baldin eta, segurtasun publikoko zerbitzuetakoak izan ez arren, interes profesionala badute edo beren jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu.

Bestalde, 15/2012 Legearen 20. artikuluko 3. atalak xedatzen du, ***“Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xedea da Gobernuak segurtasun publikoaren arlorako duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatzea, hala Euskal Herriko Poliziari dagozkion arloetan nola babes zibilar eta larrialdi-zerbitzuei dagozkienetan. Horretarako, Euskadiko erakunde erkideei dagozkien eskumenen eremuaren barruan eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun publikoko politika gauzatzen jarduten edo esku hartzen duten giza baliabideen prestakuntza eta, hala dagokionean, hautaketa planifikatu eta kudeatu beharko ditu.”***

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eginkizunen artean daude, besteak beste: (15/2012 Legearen 23. artikuluan)

b) Toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko oinarritzko arauak egitea. Arauok Ertzaintzan beste horien baliokide diren eskala eta kategorietarako ezarritakoen antzeko irizpideei egokituko zaizkie. Orobat, eta batez ere, guztientzako berdinak eta nahitaez aplikatzekoak diren hautaketa-prozesuetako programa, eduki eta egiturak egitea.

c) Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetako eskaletan eta kategorietan sartzeko alde zureko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatu, antolatu eta garatzea, eta Euskal Herriko Poliziako kideen etengabeko prestakuntza eta espezializazioarako prestakuntza antolatu eta garatzea. Horretarako, akademiak, dagozkien administrazioekin batera, kidego horien prestakuntza beharrianak ebaluatuko ditu aldiro-aldiro. Akademiak toki-erakundearen prestakuntza-zentroei eskuordetu ahal izango dizkiete, hala eskatzen badute, beren menpeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroen eta praktikaldien antolaketa eta garapena.

Hizkuntza-trebakuntzarako ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea Ertzaintzako kideak euskalduntzea lortzeko.

d) Udalerrien mendeko karrerako funtzionarioen prestakuntza-planerako oinarritzko irizpideak prestatzea, haien garapena koordinatzea eta gauzatzen laguntzea.

e) Udal-jagole edo mugikortasun-agente sartzeko oinarritzko arauak egitea, eta horien prestakuntza-ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea. Akademiak hala eskatzen duten toki erakundeen prestakuntza-zentroen gain utzi ahal izango du langile horien prestakuntza-ikastaroen antolaketa eta garapena.

f) Dagokion udalerriak akademiaren esku uzten duenean, toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoen eskala eta kategorietan sartzeko hautaketa-prozesuak gauzatzea. Era berean, udalerriekin elkarlanean aritu ahal izango da, eta laguntza teknikoa ere eskaini ahal izango die, polizia-kidegoetako funtzionarioen hautaketari dagozkion gaietan. Halaber, udalerriek hautaketa prozesuetarako deialdiak egiten dituztenean, eginkizunak egokiro betetzeko behar dituzten lankidetzak-materiala eta laguntza teknikoa eskuratu ahal izango dizkie epaimahaiei.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin izenpetzea proposatu den kudeaketa gomendioaren xedea – tokiko poliziaren oinarritzko eskalako deialdi bateratuan sartzeko – beraz, erakunde autonomo horren xede eta eginkizunen artean sartzen da.

Ilido honetatik, 1/2020 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateratua onartzen duena, bere 69.3 artikuluan xedatzen du:

“3.– Toki-erakundeek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren gomendio utzi ahal izango dute, akademiak aldeztu aurretik onartzen badu, Udaltzaingoko kidego eta zerbitzuetan sartzeko hautaketa-prozedurak batera egitea, bai eta, hala badagokio, mugikortasun-agente izateko hautaketa-prozedurak ere. Gomendio hori dela eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak egingo ditu hautaketa-prozedura horiek”

2.- Kudeaketa gomendioaren jardunbidea eta izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzak arautzen ditu, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzak hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, kudeaketa gomendioaren xedeari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 3. artikulua 3. atalak, euskal herri-administrazioek eta haien ardurapeko zerbitzuek lankidetzaren, koordinazioaren eta elkarlanaren printzipioen arabera izango dituztela elkarrekin harremanak xedatzen du eta bestalde, 44. artikulua 1. atalak berriz, segurtasun publikoaren eskumena duen sailak polizia-lankidetzarako hitzarmenak sinatzeko aukera daukala, horretarako interesa duten udalekin, lankidetzarako eta elkarlanerako modu eta prozedurak zehazteko.

Finean, formulazio horiek 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 103.1 artikulua aplikazio zehatzak dira: *La Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la ley y al Derecho.*

Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11 artikulua kudeaketa gomendioak arautzen ditu, ondoko definizioarekin:

“1. La realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.

Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de contratos del sector público. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en ésta.

2. La encomienda de gestión no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio, siendo responsabilidad del órgano o Entidad encomendante dictar cuantos actos o resoluciones de carácter jurídico den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de encomienda.

En todo caso, la Entidad u órgano encomendado tendrá la condición de encargado del tratamiento de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso en ejecución de la encomienda de gestión, siéndole de aplicación lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal.”

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko kudeaketa gomendioak, honako ezaugarriak edukiko ditu:

“3. La formalización de las encomiendas de gestión se ajustará a las siguientes reglas:

a) Cuando la encomienda de gestión se realice entre órganos administrativos o Entidades de Derecho Público pertenecientes a la misma Administración deberá formalizarse en los términos que establezca su normativa propia y, en su defecto, por acuerdo expreso de los órganos o Entidades de Derecho Público intervinientes. En todo caso, el instrumento de formalización de la encomienda de gestión y su resolución deberá ser publicada, para su eficacia, en el Boletín Oficial del Estado, en el Boletín oficial de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano encomendante.

Cada Administración podrá regular los requisitos necesarios para la validez de tales acuerdos que incluirán, al menos, expresa mención de la actividad o actividades a las que afecten, el plazo de vigencia y la naturaleza y alcance de la gestión encomendada.

b) Cuando la encomienda de gestión se realice entre órganos y Entidades de Derecho Público de distintas Administraciones se formalizará mediante firma del correspondiente convenio entre ellas, que deberá ser publicado en el «Boletín Oficial del Estado», en el Boletín oficial de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano encomendante, salvo en el supuesto de la gestión ordinaria de los servicios de las Comunidades Autónomas por las Diputaciones Provinciales o en su caso Cabildos o Consejos insulares, que se registrará por la legislación de Régimen Local.”

Beraz, Tokiko Poliziaren Oinarritzko eskalako agenteen seigarren deialdi bateratuan sartzeko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko kudeaketa gomendioa, toki araubidearen arloan indarrean dauden aipatu lege-xedapenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen babesean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11 artikuluan xedaturikoarekin bat egingo da.

Jardunbideari dagokionez, Kudeaketa gomendioaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko gardentasun atarian Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

ORGANO ESKUDUNA

Kudeaketa gomendio hau onartzeko eskumena Udalbatzarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera.

GAIA UDALBATZAKO GAI ZERRENDAN SARTZEKO PROZEDURA

Lehena. - Kudeaketa gomendia sinatzea ezin izan denez Antolakuntza Batzorde Informatiboan tratatu eta diktaminatu, Giza Baliabide sailetik gai hau gai zerrendan sartzea proposatu da gaiaren premia dela eta, izan ere Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak jakinarazi du 2025eko otsailaren 14 baino lehen kudeaketa gomendia onartzen duen hitzarmena sinatua igorri beharko dela; honela xedatzen du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, bere 82.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz:

“3. El Alcalde o Presidente, por razones de urgencia debidamente motivada, podrá incluir en el orden del día, a iniciativa propia o a propuesta de alguno de los portavoces, asuntos que no hayan sido previamente informados por la respectiva Comisión Informativa, pero en este supuesto no podrá adoptarse acuerdo alguno sobre estos asuntos sin que el Pleno ratifique su inclusión en el orden del día.”

Hortaz, puntu hau tratatu aurretik, udalbatzak puntu hau gai zerrendan sartzea berretsi beharko du.

Bigarrena. - Halaber, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 126.2 artikulua honelaxe dio:

2. En supuestos de urgencia, el Pleno o la Comisión de Gobierno, podrá adoptar acuerdos sobre asuntos no dictaminados por la correspondiente Comisión informativa, pero, en estos casos, del acuerdo adoptado deberá darse cuenta a la Comisión informativa en la primera sesión que se celebre. A propuesta de cualquiera de los miembros de la Comisión informativa, el asunto deberá ser incluido en el orden del día del siguiente Pleno con objeto de que éste delibere sobre la urgencia acordada, en ejercicio de sus atribuciones de control y fiscalización.

Hortaz, artikuluko honetan xedatutakoari jarraituaz, premiazko kasuetan, Osoko Bilkurak edo Gobernu Batzarrak informazio-batzordeak ebatzi gabeko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu, baina kasu horietan, hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio informazio-batzordeari, egiten den lehen bilkuran. Horrela, proposamen honek informazio-batzordearen irizpena izan ez duenez, nahitaezkoa izango da hartzen den erabakiaren berri Antolakuntza Batzorde Informatiboari ematea, egiten den lehen bilkuran.

Beraz, hau dena kontuan hartuta, haxe da egiten den

PROPOSAMENA

LEHENA.- Gaia Udalbatzako gai zerrendan sartzea berrestea.

BIGARRENA.- Tokiko Poliziaren Oinarrizko Eskalako agenteen seigarren deialdi bateratuan sortzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren arteko kudeaketa gomendioa onartzea, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

“KUDEAKETA GOMENDIOAREN NORAINOKOA.

PLEAk egingo ditu hautaketa prozedura gauzatzeko eta garatzeko izaera material edo teknikoko jarduera guztiak. Era berean, PLEAk argitaratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Aldizkari Ofizialean hautaketa prozesuak arautzen eta garatzen dituen oinarriak. Deialdiak eskainitako plazen deskribapenaz gain, honako gai hauek ere jaso beharko ditu:

1. TOLOSAko Udalean, hautaketa prozeduraren garapenean zehar, sortu daitezkeen Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriko lanpostu hutsen arabera deitutako lanpostuen kopurua handitzea, lege ezarritako terminoetan.
2. Parte hartzeko betekizunak EAEPLTBren 77. artikuluan ezarritakoak izango dira.

3. Eskabideak egiteko eta aurkezteko PLEAk horretarako jarriko duen prozedura elektronikoa erabili beharko da. Eskabideak aurkezteko epea deialdi bateratua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost egun baliodun baino gehiagokoa eta hogeita hamar egun baliodun baino gutxiagokoa izango da.
4. PLEAk Epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du hautaketa prozedura zehazteaz, garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dena; baita ere, parte hartzaileen hautaketaz. Epaimahai horri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 28ko 4/2005 Legean xedatutakoa aplikatuko zaio; eta, honako hauek osatuko dute:
 - PLEAk izendatutako mahaiburu bat.
 - EUDELe proposaturiko hiru bokal. Bokal horiek deialdi bateratuan parte hartzen duten udaletako langileen artekoak izango dira.
 - Hiru bokal, PLEaren proposamenez izendatuak.
 - PLEAk izendatutako idazkaria: hitza duena, baina botorik gabekoa.
5. Hautaketa sistema oposizio-lehiaketa ireki bitartez izango da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Hautapen eta Prestakuntza Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
6. Proba teorikoak ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoari lotuko zaizkio, Toki Administrazioako funtzionarioen hautaketa prozedura lotu beharreko oinarritzko arauak eta gutxiengo programak ezartzen dituen Errege Dekretuan ezarritakoari.
7. Merituen lehiaketa-fasean alderdi hauek baloratuko dira:
 - a) Udaltzaingoaren Oinarritzko Eskalako agente gisa Udaltzain Kidegoetan egindako zerbitzuak.
 - b) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Europako Esparruko 5., 6. eta 7. mailako titulazioak.
 - c) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B2 eta C1 mailak edo ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren baliokideak.

8. Euskararen jakite-maila agiri bitartez egiazta daiteke edo prozesuak dirauen bitartean egingo diren proben bitartez. Euskara probak egiteko Akademiak IVAPeko lankidetza izango du. Lehentasuna izango dute Hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarekin duten lanpostuak betetzerakoan. Horrexegatik izango dira lehen esleituak. Euskara betekizuna ez den lanpostuetarako jarraian agertzen denarekin bat etorritik baloratuko da: uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuko 11. artikuluekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan araututakoarekin bat etorritik.
9. Epaimahaiak oposizio-lehiaketa gainditu dutenen zerrenda eta hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu beharko ditu.
10. Hautaketa prozesuari buruzko argitalpenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean jarriko dira. Informazio ondorioetarako Erakunde Autonomoaren Web orrialdean ere argitaratuko dira eta deialdi bateratuan parte hartzen duten Toki- korporazioei ere igorriko zaizkie. Epeen ondorioetarako erabakigarriak izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratzen direneko datak.
11. Eskumena duen Udalak behin baldintzak betetzen direla ziurtatuta, hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dira.
12. Ezinbestean eta baztertzeko izaerarekin prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dira, bakoitza bere aldetik, eta horiek gainditu ezean, hautagaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta deialdi honi dagokion Euskal Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko eskubideak galduko ditu. Ezin izango dira batera egin, eta iraupena ez da 30 hilabetekoa baino gehiagokoa izango.
13. Prestakuntza-ikastaroa ikastaro akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzaila, eta edukia, ebaluatzen eta gainditzeko moduak, eta iraupena Ikasketen Planean eta arau aplikagarrietan zehaztuko dira. Prestakuntza-ikastaroaren kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu hamargarren puntuak aurreikusitako

moduan. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du ikastaroa gainditzen ez dutenak baztertzea.

14. Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo dute dagozkien kidegoetan. Praktikaldia hasi baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du, honako hauek ezarriko dituen: praktikaldiaren iraupena, hura baloratzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, eta praktikarako destinoak eta horietan hasteko data. Praktikaldian, hautagaiak Euskal Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriari dagozkion egitekoak betetzean erakusten duten eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. PLEAko zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu praktikaldiko kalifikazioak. Eta, PLEAko zuzendari nagusiak ebatziko du, halaber, praktikaldia gainditzen ez dutenak baztertzea.
15. Praktikaldia bukatu eta hurrengo bi hilabeteko epean, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, dagozkion administrazioeko organo eskudunak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa prozedura gainditu duten hautagaiak. Izendapena Euskal Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente gisa egingo da.
16. Praktiketako funtzionarioek haien administrazioaren kontura jasoko dituzte lanskariak, eta administrazio horrek eman beharko dizkie haren praktiketako funtzionarioei armak, dokumentazioa eta ekipamendua.
17. Praktiketako funtzionarioei Barne Araudiko Erregelamendua eta Akademiako barne araudia aplikatuko zaizkie. Halaber, diziplina-araubidearen arabera irakaskuntza arloko diziplina-hutsegite hutsak ez diren egoeretan Euskal Herriko Polizia Kidegoen diziplina- araubidearen arauak aplikatuko dira. Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik zigor bat jasotzea arrazoi espezifikoak izango da hautaketa prozeduratik kanpo geratzeko, lehen aipatutako arauekin bat etorritik, eta Euskal Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko eskubideak prozesu horretatik eratorriak galtzeko.

18. Prestakuntza-ikastaroari aplikatu ahal zaizkion ebaluazio-irizpideekin bat etorritik, Ikasketa Planean bildutako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada hautagaien batek prestakuntza-ikastaroa gainditzeko ezintasun materiala duela, dagokion administrazioko organo eskudunak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, prozesutik kanpo utzi dezake, betiere kasuan kasuko praktiketako funtzionarioari entzun ondoren.
19. Prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian hautaketa prozeduratik baztertutako pertsonak bueltatu beharko dituzte armak, dokumentazioa edo emandako edozein ekipa.
20. Hautaketa prozedura gainditzen duten pertsonak, dagokion Udaleko Alkateak karrerako funtzionario izendatuko ditu Euskal Poliziaren Oinarriko Eskalako agente gisa.

GOMENDIOAREN TERMINOAK

TOLOSAko Udalak:

- a) Eskumenen titulartasuna izaten jarraituko du. Eskumen horiek betetzea kudeaketa materialaren gomendioari buruzko akordio honen bitartez egitea gomendatzen da.
- b) Hautaketa prozesuari dagokion Lan-eskaintza Publikoa onetsiko eta argitaratuko du. Hori deialdi bateratua argitaratu baino lehen egin beharko du.
- c) PLEAri bidali beharko dio beharrezko informazioa eta prozesuaren garapen zuzenerako beharrezko materialaren lankidetzara emango dio.
- d) Behin hautaketa fasea amaituta deitutako lanpostuetara esleitura dauden pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko ditu eta hautaketa prozesua amaituta karrerako funtzionario izendatuko ditu.
- e) Deialditik sortutako gastuen finantzaketan lagunduko du, FINANTZIAZIO atalean ezarritakoaren arabera.

PLEAk, agindu zaizkion jarduerak betetzeaz gain, honako hauek izango ditu bere kargura:

- a) Ariketen garapen materialerako beharrezko operatiboa kudeatuko du: tokien kontratazioaren kudeaketa; hautaketa probak egiteko tokiak hornitzea; hautaketa prozesurako zaintzaileak kontratatzeke kudeaketa; oposizio-proben itzulpena eta erreprodukzioa; proba-egunean probak banatzea eta biltzea; halako jendetzak parte hartzen ditueneko hautaketa prozesu bat zuzentasunez gauzatzeko beharrezko diren jarduerak egitea: aparteko beharrianak dituzten pertsonen zainketa-lana eta laguntza, etab.
- b) Hautaketa prozesuak eraginkortasunez eta berdintasun, meritu, ahalmen eta publizitate printzipioak zorrotz errespetatuz prozesuak ondo gauzatzeko baliabideak bideratuko ditu, aldi berean, izaera pertsonaleko datuei buruzko indarrean dagoen araudia errespetatuz.

FINANTZIAZIOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ordainduko ditu kudeaketa gomendiotik sortutako gastuak.”

HIRUGARRENA.- Udal honetako alkate-udalburuari ahalmena ematea, aipatu kudeaketa gomendioa eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

LAUGARRENA.- Kudeaketa gomendioaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki hauek Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari eta Tolosako udaleko Kontuhartzailatza sailari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Arkauteko akademiak kudeaketa gomendioan aldaketaren bat proposatutako balu, Tokiko Gobernu Batzarrean delegatzea aldaketa horiek egiteko eskumena.

ZAZPIGARRENA.- Gai hau egiten den hurrengo Antolakuntza batzorde informatiboan berri ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko kudeaketa-gomendio hau: tokiko poliziaren oinarritzko eskalako agenteen seigarren deialdi bateratuan sartzekoa.

3. ONARTZEA ZEHAPEN-ESPEDIENTE BATI HASIERA EMATEA TOLOSAKO HIRI-GARRAIO KOLEKTIBOAREN ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO ENPRESA KONTRATISTARI, KONTRATUAREN BETEBEHARRAK EZ BETETZEAGATIK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko urtarilaren 22ko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetiko Azpisaileko teknikariak 2019ko abenduaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, administrazio baldintza partikularren plegua, preskripzio tekniko partikularren plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria, eta idazkaritza eta kontu-hartzailetzaren txostenak eskatzen zituen jardunbidea burutu ahal izateko. 2020ko uztailaren 16an, behin betiko txostena igorri zen.

BIGARRENA.- Behin jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, zegokion iragarkia argitaratu zen Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean. Proposamenak aurkezteko epean RJ AUTOCARES, S.L. (B-80615495), TOLOSALDEA BUS, S.L. (B-20477071), AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) eta TRANSITIA, S.L. eta AUTOCARES URPA, S.L. eratu beharreko ABEEa (UTE TOLOSAKO AUTOBUSA) aurkeztu ziren. Jardunbide osoa legearen arabera egin ondoren AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresa izan zen puntuazio altuena lortu zuena eta 2021eko otsailaren 9an kontratazio organoak kontratua esleitu zion. TOLOSALDEA BUS, S.L. (B-20477071) enpresak ebazpen hori errekurritu zuen

Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan (OARC/KEAO) eta EB 2021/034 ebazpenaren bitartez OARCEk ezeztatu zuen errekurtsoa. Horren ondorioz 2021eko ekainaren 1ean zegokion kontratua formalizatu zen Udalaren eta AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresaren artean.

HIRUGARRENA.- 2024ko azaroaren 11n Mugikortasun, Jasangarritasun, Trantsizio Energetikoa, Ingurumena eta Landa Garapena Azpisaileko teknikariak, hiribus zerbitzuaren funtzionamenduan jasotako kexak biltzen zituen IOG2024052 txostena igorri zuen. Txosten horretan herritarren kexak jaso ezezik, zerbitzuari atxiki beharreko baliabide falta adierazten da, beste batzuen artean. Jarraian txertatzen da txostena laburtuta:

BIGARRENA.- Gaiaren funtsa: Azterketa teknikoa

Azterketa tekniko honen helburua Autobuses Cuadra, S.A-ri azken aldi honetan eskainitako zerbitzuan dauden arazoei konponbidea emateko errekerimendua egitea da.

Kontratuaren lehen klausulan honela dio:

*“AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresak **konpromisoa hartzen du** Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu kontratua, **Administrazio Baldintza Partikularren Pleguak xedatzen dutena zehatz-mehatz betez**. Eta aipameneko baldintza agiriarekin ados dagoela adierazteko sinatu egin du ekitaldi honetan, eta kontratu honi lotzen zaio.”*

Hori kontuan hartuz, ondorengo eskaerak egiten dira:

1 Azken sei hilabeteetako langileen zerrendak

Batetik, Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

“5. Langileria erregimena

(...)Enpresa esleipendunak aurkeztu behar du, hilean behin, txosten bat, non adieraziko den zerbitzuari zuzenean atxikitako langileen (gidarien) lan-egoera, barne daudelarik gaixotasun edo istripuen ondoriozko bajak, absentismoa eta langile bakoitzak egindako lan-ordutegiaren laburpen bat.

Enpresa esleipendunak, langileak egiaztatze eta lan bakoitzaren arduradunak zein diren identifikatzeko beharrezko informazio guztia emango du Udaleko eskumena duen Zerbitzuak eskatzen dion guztietan.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, eta kontratua hasi duen langileen zerrendan aldaketaren bat gertatzen denean, bai erretiroagatik, heriotzagatik, borondatezko bajagatik, lane-tik bidaltzeagatik, aldi baterako baliaezintasunagatik, baliaezintasun iraunkorragatik eta abar, edo zerbitzuaren beharregatik langile aldaketaren bat egitean, gorabehera hori Udalarari jakinarazteko eta gerta litezkeen lanpostu aldaketak estaltzeko betebeharra du enpresa esleipendunak.”

Bestetik, Cuadra Bus S.A-k aurkeztutako B kartazalean, 5.1 zerbitzuen antolaketa eta 5.2.5.4 Urteko memoria teknikoa, honela dio aipatutako atalean:

5.1 Zerbitzuaren antolaketa atalean honela dio,

“5.1.3.3. laburpen-aula: kontratuari esleitutako langileak

Langileen segurtasuna eta erantzukizun zibila: Enpresak behar bezala aseguraturuta izango ditu bere ardurapean dauden langile guztiak, Lan Zuzenbideari eta Gizarte Segurantzari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Langileak ordezkatzeko. Kontratua indarrean dagoen bitartean, baldin eta kontratua hasten denetik aldaketarik badago plantillan, dela erretiroagatik, dela heriotzagatik, dela borondatezko bajarengatik, kaleratzea, aldi baterako baliaezintasuna, baliaezintasun iraunkorra eta abar; edo aldaketa zerbitzuaren beharrez inguruko, enpresak idatziz jakinaraziko die Zerbitzu Teknikoei. Zerbitzuaren hasi aurretik identifikatu behar dira langile guztiak udaltxean. Jakinarazpen honetan sartuko ditugu:

-Ordezgutako pertsonaren izen-abizenak, kategoria, antzintasuna eta orduak/eguna.

-Ordezkoaren izen-abizenak, kategoria, antzintasuna eta orduak/eguna.”

“5.2. ENPRESAREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIO-PROTOKOLOAK.

5.2.5.4. Urteko memoria teknikoa

c) Plantillaren estatistika: osaketa kopuruan eta kategorian, lan-absentismoa, egunean zerbitzua ematen duten langileak, lanbide-kategoriarekin eta datarekin erregistratuta sartzeko. **Urtean zehar izandako alteen eta bajeen zerrenda, izena, kategoria eta enpresaren alta-/baja-data (zerbitzuaren gorabehera gisa entregatzea proposatzen da).**

Gizarte Segurantzak eta Ogasunak ordainketan egunean dituen ziurtagiriak.”

2 Azken 6 hilabeteetako nominak eta kotizazioak

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

“5. . Langileria erregimena

(...)Langileei Gizarte Segurantzaren alta emateko eta horren inguruan kontratua jasotako legezko obligazio guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du enpresa esleipendunak. Kotizazio sozialen ordainketa egiaztatu beharko du Udaleko Zerbitzuaren aurrean, eta kontratua ezeztatze arrazoia izango da Gizarte Segurantzaren kuotak zorretan edukitzea”

Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua honela dio:

“12. klausula: Egikaritzeko baldintza bereziak.

Lan motakoak:

- Plantillaren lan-egonkortasuna, kontratua gauzatzen duten langile guztien plantilla mugagabearen gutxienezko ehunekoa 30ekoa izango dela ezarrita.

- Enpresa esleipendunaren betebeharra da kontratua gauzatuko duen plantillari aplikatzea kontratuaren prestazioa kokatzen eta garatzen duen sektoreko eta lurraldeko azken hitzarmen kolektiboan ezarritako lan-baldintzak, hargatik eragotzi gabe kontratua xedatutakoa hobetzea.”



“38. klausula. Gizarte- eta lan-arloko eta gardentasunari buruzko betebeharrak.

Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren arloetan indarrean dagoen araudia bete beharko du. Halaber, onartu behar ditu: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta Gizarteratzearen Lege Orokorraren testuategina onartzen duena; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa; azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege-Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena, eta kontratuaren egikaritzean aldarrikatzen diren bestelako arauak.

Enpresa kontratistak kontratua egikaritu bitartean aplikaziozko talde-hitzarmenean zehaztutako arauak eta baldintzak bete behar ditu, eta, edonola ere, adjudikaziodunak langileen **soldata-baldintzak bete behar ditu**, aplikaziozko sektorearen talde-hitzarmena betetz.”

(...)

“Halaber, abenduaren 9ko 9/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoak, ezarritakoa betetz, kontratuaren adjudikaziodunak arau honetan aurreikusitako betebeharrak eta udal-eremuan ezarritako gainontzeko arauak betetzeko beharrezko informazio guztia emango dio administrazioari, hark eskatuz gero.”

- 3 **Zerbitzuko gorabeherak edo aldaketak jakinaraztea:** Zerbitzuko gorabeherak edo aldaketak jakinaraztea kontratua abian egon denetik: Egon diren guztiak, irailak 26 eta 27 barne

2024JZER0002 espedientean azken urte honetan Hiribusaren zerbitzuaren kudeaketari buruz jaso diren kexak biltzen dira. Batetik, Udaltzainburuak egindako txostenean martxoan ez geroztik bildutako kexak eta bestetik Parte-hartzen aplikaziotik jasotako beste bost kexa. Kexa hauek txosten honen amaierako eranskinean bilduta daude.

Bestalde, irailaren 26 eta 27an zerbitzua maiztasun handiarekin etenda egon zen.

Cuadra Bus S.A-k B kartazalean, honela zioen 5.2.7 atalean: udalak zerbitzua gainbegiratzeari

“5.2.7.1. Zerbitzuaren gorabeherak edo aldaketak **denbora errealean jakinaraztea**. Cuadribus enpresak, bere kontrol-postuaren bidez, denbora errealean jakinaraziko dio udalari zerbitzuan gertatzen den edozein gorabehera edo aldaketa, bai eta zerbitzuen prestazioa aldatzen, larriagotzen edo gutxitzen duen beste edozein gorabehera ere. Enpresak, udaleko teknikariekin ados jarrita, kontratuan zehar sortzen diren **gorabehera guztiak ebatziko ditu**.”

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

4.-BIDAIAIRIEN HIRI GARRAIO PUBLIKOAREN ZERBITZUAREN KUDEAKETA

4.1-Garraio zerbitzuaren planteamendua

Hasiera batean, haxe da, kontratua indarrean hasten denetik eta Tolosako Udalaren aldetik zerbitzuaren prestazioan aldaketarik egiten ez den bitartean, zerbitzu horiek I. Eranskinaren "Zerbitzuaren egungo egoera, lineak eta ibilbideak" eta hartan zehaztutako ibilbideen, geldialdien, maiztasunen, ordutegien eta ibilgailu kopuruaren arabera egingo ditu enpresa esleipendunak, Pleguan aurreikusitako salbuespenak, aldaketak eta zehaztapenak salbu.

(...)

Enpresa lizitatzailerik erabiltzaileei informazioa eta bezeroei arreta emateko Plana sartu beharko dute beren eskaintzan, haxe da, gutxienez Informazio eta eguneratze plan bat geltokietan zerbitzuaren etengabeko informazioa emateko nahiz gerta daitezkeen gorabeheren berri emateko, Kexak eta iradokizunak kudeatzeko, eta Informazio plan bat foiletan eta giden bidez, zerbitzuen xehetasun guztiekin."

4 B Kartazalean adierazitako hobekuntzak betetzea

Cuadra Bus S.A-k aurkeztutako B kartazalean, 3.1.2.3 ibilgailuratzean bidaiariei informazioa emateko sistema (SIV) eta 3.1.3.2 planifikatutako aldaketak, honela zioen aipatutako ataletan:

"3.1.2.3. Ibilgailuratzean bidaiariari informazioa emateko sistema (SIV). Bidaiarientzako informazio-sistemen azken bilakaera da, eta erabiltzaileari informazio gehiago eta hobea erakustea ahalbidetzen duen arkitektura. Autobusen barruan **TFT pantailak** jartzean oinarritzen da."

"3.1.3.2. Planifikatutako aldaketak.

Enpresak geltokietan, salmenta-puntuetan eta autobusetan jarriko ditu gertatzen diren gorabeherak eta aldaketak, Tolosako Udalak ezarritako epeetan. Aldaketa horiek Udalak ezarritako eta onartutako formatu batean argitaratuko dira

Irizpide hori justifikatzeko, jendearentzako informazioa osatzen da honako hauen bidez:

- Autobusetan TFT edukia pantailatzeko proposamena
- Zerbitzuaren erabiltzaileei beren langileekin zuzenean komunikatuz
- Instalazio berriko webgunean. Oharren atala
- QR kodea geltokietan eta ibilgailuetan
- Erabiltzaileei autobusetan banatu beharreko informazio-oharrak
- Toki-mailako komunikabideetan, Udalaren alde aurreko baimenarekin. Sare sozialen, Twitterren eta abarren bidezko komunikazioa"

5 Langileagoaren euskara betekizunak

Tolosako Udalean aurkeztutako kexetan ordezkaturako langileak euskara betekizunak ez dituela betetzen adierazten dute.

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

"5. . Langileria erregimena

(...)Plegu honetan aurreikusitako subrogazio obligazioei kalterik egin gabe, zerbitzuarekin loturiko langileek zerbitzuari behar bezala erantzuteko euskara maila egokia izan dezaten bermatuko da.”

Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Hiri-garraio Kolektiboaren Zerbitzu Publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratuan honela dio:

“12. klausula: Egikaritzeko baldintza bereziak.

(...)Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz burutzeko herritarrek inolako oztoporik ez dutela izango bermatu beharko da, horretarako modurik eraginkorrena delarik kontratu-emailearen langile guztiak elebidunak izatea. Beraz, **herritarrekin harreman zuzena izango duten langileak elebidunak izango dira** halaberharrez eta helburu hori lortze aldera, udalean bertan lan egiteko bete beharko lituzketen baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza eskakizunei dagokienean.”

Cuadra Bus S.A-k aurkeztutako B kartazalean, 5.1.4.3.1 langileak hautatzeko plana, honela zioen aipatutako ataletan:

“ 5.1.4.3.1 Langileak hautatzeko plana.

Euskararen ezagutza: Enpresak zerbitzua ematen duen langileak herritarrekiko harreman zuzenean egin beharreko zerbitzua da. Beraz, gaitasun hori, B2 mailaren baliokidea, justifikatu beharko da. Hizkuntza gaitasun hori 297/2010 Dekretuak aipatzen dituen ziurtagirien bidez egiaztatu beharko da edo Udalak egiten dituen azterketen bidez.

Langileren bat ordezkatzuz gero, haren lekua betetzen duenak hizkuntza-gaitasun bera izan beharko du. Langile berriarekin, aipatutako prozedura bera jarraituko da gaitasun hori egiaztatzeko.

Beraz, herritarrekin izaten dituen ahozko komunikazioak, zerbitzuak euskaraz eman beharko dituzte. Hau da, enpresa esleipendunak euskaraz eman beharko dio hasiera elkarrizketari, eta zerbitzuaren hartzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du.”

6 Autobusaren mantentzea

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

“6. GARRAIO IBILGAILUAK

6.5 Ibilgailuaren mantentze-lana

Enpresa esleipendunak “Ekipo mekanikoak (ibilgailuak, makineria eta osagarriak) mantendu, kontserbatu eta garbitzeko planean” (eskaintzarekin batera aurkeztuko duena) agindu duen plangintza eta esku hartze mailaren arabera egingo du ibilgailu guztien mantentze lana.

Orientagarri gisa, mantentze-lan horrek honako alderdi hauek estali beharko ditu gutxienez:
- Bateriak konpontzea edo ordezkatzeta.

- Energia metatzeko sistemaren eta monitorizazio elektrikoaren berrikuspenak eta konponketak.
- Motor elektrikoaren eta konpresorearen olio aldaketa.
- Piezak aldatzea eta ordezkatzeta.
- **Ibilgailu guztien PRE eta IAT azterketak.**
- Barne karrozeriako elementu guztien berrikuspen eta mantentze orokorra, esate baterako, barrak, eserlekuak, kristalak, ticketing/ULS sistemarekin loturiko elementuak.
- Kanpo karrozeriako elementu guztien berrikuspen eta mantentze orokorra, esate baterako, argiak, tulipak.
- **Ibilgailuen garbiketa barnealdetik nahiz kanpoaldetik.**
- MMP bidaiariak sartzeko arrapalari dagozkion elementu guztien berrikuspena eta mantentzea.
- Esekidura, direkzio, klimatizazio, komunikazio sistemekin loturiko sistema guztien berrikuspena eta mantentzea.
- Kotxetegiako kargatze puntuari dagokion 90 KW-eko linea elektrikoaren mantentzea.
- Gurpilen eta pneumatikoen berrikuspena eta mantentzea.

- Ekipamendu elektriko konbentzionalaren berrikuspena eta mantentzea, karga sistemarekin eta monitorizazio elektrikoarekin loturik ez daudenak.

Aurkezten duten mantentze Planean, mantentze horrek ibilgailuak egiazko zerbitzuan egoteari begira izango duen eragina adierazi eta kuantifikatu beharko dute lizitatzailerek.”

Cuadra Bus S.A-k aurkeztutako B kartazalean, 2. Ekipo mekanikoak (ibilgailuak, makineria eta osagarriak) mantendu, kontserbatu eta garbitzeko plana, honela zioen aipatutako ataletan:

“Enpresak sei hilean behin egiaztatuko du ibilgailu bakoitzari egindako mantentze-lanak”

Autobuses Cuadra Bus S.A-k aurkeztutako plangintza berean honela zioen:


“2.6-IBILGAILUAK GARBITZEKO PLANA

Flota GARBITZEKO PLANA aurkezteko orduan, honako hauek bereizten dira:

-Mantentze-lanen eguneroko garbiketa-desinfekzioaren zirkuitua.

2.1. INTRODUCCIÓN.

Cara a realizar el plan de mantenimiento de los vehículos nos basáremos en Sistema de Gestión de Mantenimiento Asistido por Ordenador (SGMAO), que nos servirá para gestionar y tomar decisiones de cara a la actualización del PLAN DE MANTENIMIENTO de la flota de vehículos.



La empresa acreditará semestralmente el mantenimiento realizado a cada vehículo.

Queremos remarcar que toda la flota se estaciona en nave cubierta.

MANTENIMIENTO PREVENTIVO	• Mantenimiento DIARIO vehículos, plataformas, sistemas de anclaje y medidas seguridad. • Mantenimiento Sistemático (por km o por tiempo). • Inspecciones Técnicas Legales.
MANTENIMIENTO CORRECTIVO.	• Planificado (detección y planificación). • No planificado (averías imprevistas). Análisis y estudio de operaciones correctivas para incluirlas en el plan de mantenimiento sistemático o aplicación de mantenimiento modificativo.
MANTENIMIENTO PREDICTIVO.	• Diagnóstico de parámetros de funcionamiento de vehículos. • Analíticas de aceite. Estudios de degradación de aceite de motor para en su caso ampliar periodos en función de la calidad del aceite y del modelo de vehículo.

XORRENDOR

-Garbiketaren errepasoa, lanaldi erdian, desinfekzioa.

-Kontserbazioko garbiketa osagarriak.”

7 Erreserbako ibilgailuaren ezaugarriak

Erreserbako ibilgailua erabiltzera behartutako egoera sortzen denean, ibilgailu honek Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu.

Kontuan izan behar da autobusa **egokitua izan behar dela mugikortasun mugatua duten pertsonen erabil ditzaten**, hori horrela, bi kibrantza makina izan behar ditu txartela balioztatzeko bat aurrealdean eta bestea erdiko atalean egokitutako lekuan.

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

“6. GARRAIO IBILGAILUAK

6.3 Erreserbako ibilgailua

Kontratuaren lehen urterako gehienez enpresa esleipendunak erreserbako ibilgailua eskaini beharko du soilik.

- Beheko aldea jarraitua duen autobus urbanoa, lurretik gora 300 eta 350 mm arteko plataforma altuerarekin.

- Gehieneko luzera: 11,55 eta 12,50 metro artean.

- Bidaiarientzako guztizko edukiera indarrean dagoen legeriaren arabera gutxienez 70 bidaiarirekin (gutxienez 20 eserlekuekin eta ibilgailu gurgildunentzako 2 leku).

- Aire egokitua

- Belaunikatze gailua (kneeling) beharko dute eskuineko aldean.

- Motelgailu pneumatikoak (guztiak).

- Gidariaren postua: besaulki pneumatiko ergonomikoarekin eta manpara garden batez isolatua.

- **Egokituak izango dira mugikortasun mugatua duten pertsonen erabil ditzaten**, arrapala sistemeekin (automatikoa eta eskuzkoa) erdiko atean eta erdiko plataforman 2 aulki gurgildunentzako lekua izan behar dute.

- Dagokien ibilgailuen azterketa teknikoa edukiko dute behin betiko matrikulatu ahal izateko.

Autobus hau zerbitzua emateko beharreko elementu guztiekin hornituta egon beharko dira: SAE eta **ticketing ekipamendua**, GPS eta abar, III.Eranskinaren "Kontrol postua ekipamendu ontziratua" arabera eta baldintza teknikoaren plegu honek zehaztutako baldintzetan. Horniketa hau, enpresa esleipendunaren kontura izango da.”

8 Garraio ibilgailuen erabilera

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzura atxikitako bi ibilgailuak, zerbitzu hau emateko bakarrik erabili daitezke, Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan jasota dagoen moduan:

“6. GARRAIO IBILGAILUAK

Zerbitzua eraginkortasunez emateko, beharrezkotzat jotzen da zerbitzuari atxikitzea ibilgailu bat-linea erregularreko ibilbidea egingo duena- eta erreserbako beste bat dituen flota.

Autobus elektrikoa zerbitzura atxikitzeke gehienezko epea urtebetekoa izango da kontratua sinatzen den egunetik. Urtebeteko epe horretan **zerbitzura atxikituko den autobus nagusia udalaren jabegokoa den autobusa izango da**. Udalaren autobusa bera, erreserbako ibilgailu bezala erabili ahalko da, kontratuak irauten duen beste 4 urteetan. Kontratuaren lehen urterako enpresa esleipendunak erreserbako ibilgailua eskaini beharko du soilik.

6.1 Ibilgailu nagusia elektrikoa izango da

Enpresa lizitatzailleek zerbitzuaren Programazio eta antolamendu programa sartuko dute beren Eskaintza teknikoan, **hiri garraio zerbitzua jasotako ibilgailuekin ezin hobe emango dela justifikatzeko eta bermatzeko**. Era berean, beren eskaintzan adieraziko dute zerbitzuarekin loturiko ibilgailuak ordezkatzeko politika matxuraren bat gertatuz gero, zerbitzuaren jarraipena ziurtatu ahal izateko beti.

6.3 Erreserbako ibilgailua

Hiri garraio zerbitzua emateko erabilitako ibilgailu nagusia (elektrikoa) kontratu honek xede duen zerbitzuari atxikita egongo da beti, eta garraio zerbitzu hau emateko bakarrik erabiliko dira. Horrenbestez, ibilgailu hau ezin izango da beste helburu batzuetarako erabili, Udaleko Mugikortasun Zerbitzuak berariazko baimena ematen duenean salbu.”

Udalak jaso duen informazioaren arabera, Udal jabetzakoa den ibilgailua udaran Renfe Operadora Espainiako trenbide eragile publikoarentzat zerbitzu gehigarriak emateko erabili da, II. Eranskineko argazkietan ikus daitekeen moduan.

Hortaz gain, Autobuses Cuadra S.A.-k Gueñes eta Orozko udalerrietan eskaintzen dituzten eskola autobusen zerbitzuetan, Tolosako hiri-garraio kolektiborako solik erabili daitezkeen ibilgailuak sartu dituzte euren eskaintzetan, 3167DWC eta 7078LCJ matrikuladun ibilgailuak hain zuzen ere, III. Eranskinean ikusi daitekeen bezala.

9 Urteko kontuen eta bidaiari kopuruaren berri ematea

Batetik, Cuadra Bus S.A.-k administrazioari idatziz eta hilean behin informazioa eman behar dio guztira egindako kilometroei eta zerbitzuko trafikoen eta erabiltzaileen bolumenari buruz, eta baita txartelen salmentaren kontzeptuan eta ordaintzeko beste modalitate batzuen bidez jasotako zenbatekoei buruz ere.

Bestetik, herritarrek diote ordezeko autobusa erabiltzen dutenean ez dela kobraketarik egi-ten, ez eta bidaiarien erregistrorik, ezta autobus-txartelik ematen.

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

“13.- ZERBITZUAREN KONTROLA

13.3-Enpresa esleipendunaren betebeharrak

11.- Administrazioari idatziz eta **hilean behin informazioa emango dio** guztira egindako kilometroei eta zerbitzuko trafikoen eta erabiltzaileen bolumenari buruz, eta baita **txartelen salmentaren kontzeptuan eta ordaintzeko beste modalitate batzuen bidez jasotako**

zenbatekoei buruz ere. Txartelak saltzeagatik edo beste ordainketa-modalitate batzuen-gatik kobratutako diru-sarrerak, zerbitzuaren hilabeteko kostuarengatik fakturatzen den kopurutik kendu egingo dira, zerbitzua emateagatik fakturak jaulkitzean. Ondorio horietarako, esleipendunak kontuan hartuko du txartelak edo bestelako ordainketa-modalitateak bere izenean jaulki behar dituela, eta aplikatu beharreko tarifak, une bakoitzean dagokion BEZa barne hartzen dutela.”

10 Autobus elektrikoaren hasierako fitxa teknikoa eta azterketa teknikoen agiriak

Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan honela dio:

“6. GARRAIO IBILGAILUAK

6.5 Ibilgailuaren mantentze-lana

Gainera, lizitatzailleek beharreko **informazio tekniko guztia** (tailerreko eskuliburuak, eskemak, ataltzeak, ordezkio piezen katalogoak eta abar) sartuko dute beren eskaintzan, ibilgailuetan mantentze lanak eta konponketak egin ahal izateko. Era berean, segurtasunari eta osasunari begira prestakuntza egokia jasoko dute oinarrizko mantentze taldeari edo mantentze talde konbentzionalari zuzendua atal elektrikoaren babesari dagokionean.”

ONDORIOA:

Cuadra Bus S.A-k ez ditu betetzen Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan eta Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Hiri-garraio Kolektiboaren Zerbitzu Publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratuko baldintzak, ezta beraiek aurkeztutako B kartazaleko proposamena ere.

Txosten hau igortzen den egunetik aurrera enpresa esleipendunak aurkeztu behar du **hilerero** txosten bat, non adieraziko den Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan adierazitakoa: zerbitzuaren gorabeherak, langileen aldaketak baldin badaude, bidaiari kopurua, autobusaren mantenua... aurreko puntuetan adierazitakoa azalduz.

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire

PROPOSAMENA

LEHENEA.- ESKATZEA Autobuses CUADRA S.A-ri honako dokumentazioa eta txostena aurkezteko 15 eguneko epean:

- Azken sei hilabeteetako langileen zerrendak.
- Azken 6 hilabeteetako langileen nominak eta kotizazioak.
- Azken 6 hilabeteetako langileen lan-orduak, Tolosako Hiribus zerbitzukoak eta Autobuses Cuadra S.A. enpresan beste zerbitzuetarako eginikoak barne.
- Zerbitzuko gorabeherak edo aldaketak jakinaraztea kontratua abian egon denetik: Egon diren guztiak, irailak 26 eta 27 barne.
- B kartazalean adierazitako hobekuntzak betetzen direla adierazten duen justifikazioa.
- Euskara betekizunak.

- Autobusaren mantentzearen kudeaketaren azalpena
- Erreserbako ibilgailuaren ezaugarriak
- Urteko kontuen eta bidaiarien berri ematea.
- Autobus elektrikoaren hasierako fitxa teknikoa eta azterketa teknikoen agiriak.
- Tolosako Hiri-garraio kolektiboko zerbitzura atxikita dauden ibilgailuen erabileraren zehaztapenak aipatu zerbitzutik kanpo.
- Aipatutako informazio guztia laburtzen duen txostena.
- Hemendik aurrera hilean behin txostenak igotzea.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Kontratuaren lizitazioa arautzen duten administrazio baldintza partikularren pleguetako 24. klausulan adierazten den bezala, proposamenak aurkeztearekin, lizitatzailerek pleguetan aurreikusitako klausulak osorik onartu zituzten inongo erreserbarik gabe:

Proposamenak aurkeztean, enpresariak kontratua arautzen duten agirietan aurreikusitako klausulak edo baldintzak osorik eta mugarik gabe onartzen dituela iritziko zaio, inolako eragozpenik eta salbuespenik gabe.

La presentación de proposiciones supone la aceptación incondicional por el empresario del contenido de la totalidad de las cláusulas o condiciones previstas en los pliegos que rigen el contrato, sin salvedad o reserva alguna.

Era berean, 2021eko ekainaren 1ean formalizatutako kontratuaren bigarren klausulak hau zehazten du:

BIGARRENA.- Kontratuaren oinarriak, honako hauek izango dira:

- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, dokumentu honi lotzen zaio.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- 2021eko otsailaren 9ko Gobernu Batzarraren ziurtagirian ezarritako esleipen-baldintzak.
- Esleipendunak lizitaziora aurkeztutako proposamena.

SEGUNDA.- Las bases del contrato serán las siguientes:

- El pliego de cláusulas administrativas particulares que se adjunta a este documento.
- El pliego de prescripciones técnicas particulares.
- Las condiciones de adjudicación que se indican en el certificado de la Junta de Gobierno, de 9 de febrero de 2021.
- La oferta presentada a la licitación por la empresa adjudicataria.

Beraz, argi dago enpresa kontratistak pleguetan xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartu zuela bai bere proposamena aurkeztu, baita kontratua formalizatu zuenean.

BIGARRENA.- Preskripzio tekniko partikularren pleguan ibilgailuei buruz hau zehazten du (laburtuta):

Zerbitzu hau eraginkortasunez emateko, beharrezkotzat jotzen da zerbitzuari atxikitzea ibilgailu bat—línea erregularreko ibilbidea egingo duena— eta erreserbako beste bat dituen flota.

Autobus elektrikoa zerbitzura atxikitzeko gehienezko epea urtebetekoa izango da kontratua sinatzen den egunetik. Urtebeteko epe horretan zerbitzura atxikituko den autobus nagusia udalaren jabegokoa den autobusa izango da. Udalaren autobusa bera, **erreserbako ibilgailu bezala erabili ahalko da**, kontratuak irauten duen beste 4 urteetan. Kontratuaren lehen urterako enpresa esleipendunak erreserbako ibilgailua eskaini beharko du soilik.

...

Beti ere aldeaz aurretik Udalaren baimena eskuratuta, hiri garraio zerbitzuan erabiltzen diren ibilgailu, logotipo, informazio edo/eta publizitate inprimaki guztiek eramango dute, emakidadunaren identifikazioaz gainera, Tolosako Udalaren aipamena. Beste horrenbeste egingo da kontratatutako zerbitzuak emateko erabilitako instalazioetan.

...

Hiri garraio zerbitzua emateko erabilitako ibilgailu nagusia (elektrikoa) kontratu honek xede duen zerbitzuari atxikita egongo da beti, eta garraio zerbitzu hau emateko bakarrik erabiliko dira. Horrenbestez, ibilgailu hau ezin izango da beste helburu batzuetarako erabili, Udaleko Mugikortasun Zerbitzuak berariazko baimena ematen duenean salbu.

Para la prestación efectiva de este servicio se estima necesaria la adscripción al servicio de una flota compuesta por un vehículo, que será el que realice la operación de la línea regular, más otro de reserva.

El plazo máximo para incorporar el autobús eléctrico será de un año desde la formalización del contrato. El ayuntamiento dispone de un autobús convencional que se adscribirá al servicio como autobús principal durante el primer año y **se podrá utilizar como vehículo de reserva** durante los siguientes 4 años de duración del contrato. Durante el primer año la empresa adjudicataria deberá proporcionar únicamente el autobús de reserva.

...

Siempre con la previa autorización del Ayuntamiento todos los vehículos, logotipos y material impreso informativo y/o publicitario o de otra naturaleza, que se utilice en el servicio de transporte urbano, llevarán además de la identificación de la empresa adjudicataria, la referencia al Ayuntamiento de Tolosa. Igualmente se hará en las instalaciones utilizadas para la prestación de los servicios contratados.

...

El autobús principal eléctrico deberá estar permanentemente adscrito al servicio objeto de este contrato, y utilizado en régimen de exclusividad en la prestación de este contrato, y utilizado en régimen de exclusividad en la prestación de este servicio de transporte, por lo que no podrán ser utilizados para otros fines, salvo autorización expresa del Servicio Municipal competente.

Beraz, argi geratzen da bi ibilgailu desberdinetaz hitz egiten ari garela, batetik udalaren jabetzakoa den ibilgailua (3167DWC) eta bestetik, berriz, enpresa kontratistak atxikitako ibilgailu elektrikoa (7078LCJ). Bi ibilgailu horiek **zerbitzura atxikita daude eskusibitatean** eta ezin dira beste helburu batzuetarako erabili, Udaleko berariazko baimenik gabe, are gehiago erregai konbentzionalarekin funtzionatzen duenak, udalaren jabetzakoa izanda.



Horiek horrela, aipatutako IOG2024052 txosteneko II. eranskinean jasotakoaren arabera, enpresa kontratistak Renferi eskaini dio 3167DWC matrikuladun ibilgailua **kontratuarekin zerikusirik ez duen zerbitzu bat emateko**. Argazkian ikus daitekeen bezala, udal jabetzakoa den ibilgailua Renfe R1 kartelarekin azaltzen da.

Argazki hauetan ikus daitekeen bezala, ibilgailu urdina Renfeko kartelarekin azaltzen da "Paradas: Urnieta-Hernani" jartzen duelarik. Halaber, beste argazkian ikus daitekeen moduan, udal jabetzako ibilgailu urdina eta Tolosako logoekin margotutako ibilgailu txuria Renfeko karteekin azaltzen dira.



Halaber, Orozkoko (Bizkaia) Udaleko 660/2024 alkatetza dekretuan, 2024ko irailaren 24koa, jasota geratu zen baimena ematen zitzaiola Autobuses Cuadra, S.A. enpresari Orozko udalerriko errepideetan zerbitzua emateko. Horretarako, hainbat ibilgailuen matrikulak baimentzen ziren, horien artean Tolosako Udaleko jabetzakoa den 3167DWC ibilgailua.

4186 KGW	5854-MKF
3167 DWC	1835-GSF
7078LCJ	5177-GWF

Modu berean, Güeñeseko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko irailaren 27an onartu zuen Autobuses Cuadra, S.A. enpresari baimena ematea eskola-zerbitzua emateko eta berriro ere, ibilgailuen artean, Tolosako Udaleko jabetzakoa den 3167DWC ibilgailua eta 7078LCJ zerbitzura atxikitako autobur elektrikoa ateratzen dira zerrendatuta.

Matrículas de los vehículos que realizarán los servicios:

9519- GWN	6051- GWY	4411- HBH	6531- HCB	6344- HFD	6349- HFD
6401- HFD	6421- HFD	6933- HFD	4932- HLC	4960- HLC	5034- HLC
3203- HPF	4285- HXS	4378- HXS	3697- HYC	2182- JGB	2404- JGB
6786- JMH	1383- JML	1164- JNG	6745- JPK	6856- JPK	7233- JPK
7486- JPK	7657- JPK	8225- JVJ	7986- KHW	7983- KHW	7991- KHW
3167- DWC	7078- LCJ	1721- LKM	7122- LVR	3652- LXM	4836- JSR

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, ikusi daiteke AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresak Tolosako Udaleko jabetzakoa den ibilgailu bat eta modu eskusiboan Tolosako zerbitzura atxikita dagoen beste ibilgailu bat beste udalerrri batzuetako zerbitzuentzako eskuragarri jarri dituela.

HIRUGARRENA.- Aurrekoaz gain, administrazio baldintza partikularren pleguetako I. eranskineko 30. idatz-zatian hau zehazten dazehapenei buruz:

30.- Zehapenak. (12., 39., 43., 45., 47. eta 53. klausulak)

...

b) Partzialki ez betetzeagatik edo akatsekin betetzeagatik:

b.1) Akatsekin betetzeagatik: SPKLaren 192. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, kontratistak, berari egokizkiokkeen arrazoiak tarteko, partzialki bete ez baditu kontratuan definitutako prestazioak, zigor hauek ezarriko zaizkio: baldin eta akatsa konpon badaiteke, kontratuaren prezioaren —BEZa sartu gabe— ehuneko 2ko zigorra. Eta akatsa ezin bada konpondu, kontratuaren prezioaren —BEZik gabe— ehuneko 5eko zigorra.

b.2) Giza baliabide edo baliabide materialak bideratzeko konpromisoak ez betetzeagatik: Ez dagokio, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

30.- Penalidades. (Cláusulas 12, 39, 43, 45, 47 y 53)

...

b) Por incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso :

b.1) Por cumplimiento defectuoso: de conformidad con lo establecido en el artículo 192 de la LCSP, cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, se le impondrá una penalidad del 2 por cien del precio del contrato, IVA excluido en el caso de que el defecto sea subsanable; en el caso de que el defecto no sea subsanable, se le impondrá una penalidad del 5 por cien del precio del contrato, IVA excluido.

b.2) Por incumplimiento de los compromisos de adscripción de medios personales o materiales: No procede, dado que tiene atribuida la consideración de obligación contractual esencial y el incumplimiento de ésta será causa de resolución.

b.3) Egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik: Ez dagokio, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

...

b.3) Por incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución: No procede, dado que tienen atribuido el carácter de obligación contractual esencial.

...

LAUGARRENA.- Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurreikusten du administrazio kontratatzaileak, kontratistak kontratuaren baldintzak betetzen ez baditu, kontratua suntsiaraz dezakeela edo zigorrak ezar ditzakeela. Horretarako, zigorrak, oro har, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean ezarri ahal izango dira: kontratuaren xede den prestazioa oker betetzea edo konpromisoak edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.

Horrela, SPKLren 192. artikulua lehenengo apartatuan aurreikusten denez, baldintza-agiriekin edo deskripzio-agiriak zigorrak aurreikusi ahal izango dituzte, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez denerako, edo SPKLren 76. artikulua 2. apartatuaren eta SPKLren 202. artikulua 1. apartatuaren arabera kontratua gauzatzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez direnerako. Zentzu horretan, SPKLren 192.1 artikulua adierazten du zigor horiek proportzionalak izan beharko dutela ez-betetzearen larritasunarekiko, eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo direla izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoak, BEZik gabe, ezta guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino handiagoak ere. Aurreikuspen horri dagokionez, SPKLren 192. artikulua horren bigarren atalak aurreikusten duenez, kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioen betearazpena partzialki bete ez badu, Administrazio kontratatzaileak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo administrazio-klausula zehatzen agirian edo deskribapen-agirian kasu horietarako zehatzen diren zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango du.

Araubide horretatik abiatuta, esan daiteke kontratazio publikoaren eremuko zigorrak hertsatzeko isunak direla, ez dira zehapenak, eta kontratu-izaera dute (Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 26ko 290/2006 epaia – ECLI: ES: TSJCL: 2006:2790). Horrela, bada, betebeharra erregularitasunez betetzen dela ziurtatzeko presio-bidea dira, artikulua zigor-klausula gisa. 1.152 CC. Aurreikuspen horren ildotik, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko urriaren 14ko 839/2020 Epaia, erreko. 151/2017 (ECLI: ES: TSJCV: 2020:6630), kontratazio publikoaren eremuko zigoren izaera juridikoari dagokionez, honako hau adierazten zuen Zuzenbideko Zazpigarren Oinarrian: *“En este momento vamos a analizar la naturaleza jurídica de las “penalidades” en el ámbito de la contratación, hemos señalado en el fundamento de derecho quinto que no se trata de “una sanción” ni es aplicable el procedimiento administrativo, todo ello sin perjuicio de la obligación de dar audiencia previa antes de acordar las penalidades...”*. Era berean, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi

Nagusiaren 2005eko otsailaren 9ko 361/2005 Epaia, 1045/2002 (ECLI: ES: TSJCV: 2005:741), honako hau adierazten zuen Zuzenbideko Bigarren Oinarrian: *“La jurisprudencia tiene declarado que cuando la Administración impone al contratista las expresadas penalidades no ejercita su potestad sancionadora, sino que su imposición se efectúa en el contexto de la contratación administrativa, haciendo aplicación de cláusulas contractuales aceptadas por las partes, habida cuenta que las cláusulas penales establecidas en los contratos administrativos, como ocurre en el Derecho Civil, se rigen por lo acordado entre las partes, sin que la posición privilegiada que ocupa la Administración en la contratación administrativa altere o desnaturalice las relaciones jurídicas surgidas de los pactos suscritos por los contratantes.”*

Bestalde, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko maiatzaren 18ko Epaia, 476/2016 zenbakikoa, rec. 675/2013 (ECLI: ES: TSJCV: 2016:3642), Zuzenbideko Laugarren Oinarrian honako hau azpimarratzen du: *“Por tanto, en cuanto a la naturaleza jurídica del acto que analizamos, la primera conclusión que se obtiene es que aún cuando el propio Pliego denomine infracción y procedimiento sancionador, no estamos ante un procedimiento de esta naturaleza sino ante cláusulas penales contractuales,...”*.

Beraz, aztertzen ari garen egintzaren izaera juridikoari dagokionez, lehenengo ondorioa da Pleguak berak arau-haustea eta zehapen-prozedura deitzen baditu ere, ez gaudela horrelako prozedura baten aurrean, kontratu-klausula penalen aurrean baizik...

Zigorak ezartzea, beraz, kontratistari hertsatzeko edo presio egiteko bitarteko gisa erabiltzen da administrazio-kontratazioan, eta bitarteko hori aplikatzen da kontratuan ezarritako betebeharrak aurrez ezarritako epearen barruan erregularitasunez betetzen direla ziurtatzeko, eta, horrela, obra aurreikusitako epean amaitzea bilatzen da. Beraz, behin eta berriz ulertu da zigor horiek ezar daitezkeela kontratistak kontratua gauzatzean berandutzen denean, baina ez obra amaitu ondoren. Izan ere, haren helburua da kontratua behar bezala betetzea eta kontratuko balizko ez-betetzeak zuzentzea eta jokabideak ez zigortzea, zigor horiek ez baitira hertsiki zehatzaileak, eta, beraz, helburu hori galduko lukete.

Ikus daiteke, beraz, Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren ustez **kontratazio publikoaren arloko zigorrek ez dutela administrazio-zehapen izaera**, baizik eta legea aurreikusitako formula bat dela kontratista behartzeko administrazio-kontratuan bere gain hartutako betebeharrak garaiz betetzera. Hori ezartzeko prozedurari dagokionez, legean ez da zehazten ezarpen-prozedura, eta, beraz, lizitazioa arautzen duten administrazio-klausula zehatzen agiriak ezarri behar du prozedura sumario bat, alegazio-epe labur batekin. Horretarako, kontratuaren arduradunak proposatuta hasiko da, eta kontratazio-organoak hartuko du ezarpen-erabakia (SPKL, 194.2 art.).

BOSGARRENA.- Arestian aipatu bezala, pleguak hau zehazten du: “b) *Partzialki ez betetzeagatik edo akatsekin betetzeagatik: b.1) Akatsekin betetzeagatik: SPKLaren 192. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, kontratistak, berari egoz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, partzialki bete ez baditu kontratuan definitutako prestazioak, zigor hauek ezarriko zaizkio: baldin eta akatsa konpon badaiteke, kontratuaren prezioaren —BEZa sartu gabe— ehuneko 2ko zigorra. Eta akatsa ezin bada konpondu, kontratuaren prezioaren —BEZik gabe— ehuneko 5eko zigorra.*”. Kasu honetan, ulertu behar da enpresa kontratistak zuzendu daitekeen akatsarekin egikaritu duela kontratua, hortaz, kontratuaren prezioaren -BEZa sartu gabe- ehuneko 2ko zehapena jarri beharko litzaioke enpresari eta ez %5. Kontratuaren prezioa 1.502.921,25 eurokoa denez (1.507.223,15 euro lizitazio prezioa), **30.058,43 eurokoa izango litzateke aplikatu beharreko zehapena.**

Egia da kontratua ez betetzeak ezin duela kontratua aldeztu aurretik suntsiaraztea eragin; aitzitik, kontratua ez betetzea larria, kualifikatua eta funtsezkoa izan behar da, suntsiarazpena baita egoera horretatik erator daitekeen ondorio larriena. Auzitegi Gorenak 2001eko abenduaren 14ko epaian adierazi duenez, kontratua ez betetzearen ondoriozko suntsiarazpena mugatu egin behar da bere betebeharrak betetzeko borondate errebeldea agerian geratzen den kasuetara.

Kontsulta-organoen doktrinak, ikus adibide gisa, Estatuko Kontseiluaren ekainaren 18ko 500/2015 Irizpenak, Administrazioaren suntsiarazpen-ahalari buruzkoan, adierazten du suntsiarazteko ahalmena berez dela hain ondorio larria, non behartzen baitu ez-betetze larrienetan soilik aplikagarritzat jotzera; izan ere, nabarmen neurrigabea eta bidegabea izango litzateke edozein ez-betetzek, oraindik gutxienekoa bada ere, ebazpen hori ekartzea, aukera hori Administrazioak nahitaez erabili behar baitu, behar bezala.

Kontratua suntsiarazteko behar besteko ez-betetze bat dagoela hautemateko, erabakigarria izan behar du kontratuaren prestazio nagusiari edo prestazio osagarriei eragitea, baina hain modu larrian, kontratua gauzatzea arriskuan jar dezaten edo baldintza-agirietan horrela definitutako gauzatze-baldintza bereziei, eta prestazioak erabat edo funtsean ez betetzearen bidez kanporatzea.

Jurisprudentzia errepikatuaren arabera, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1989ko martxoaren 20ko epaia edo Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2018ko otsailaren 13ko epaia, obra-kontratua emaitza-kontratua izan ohi da. Hori dela eta, bai Legeak bai Erregelamenduak, kontratu honen exekuzioa garatzean, aipatutako aginduak azpimarratzen dituzte, kontratistak ondoz ondoko exekuziorako ezarritako epe partzialak betetzeko duen betebeharra azpimarratzeko, bai eta guztiz gauzatzeko orokorra edo amaierakoa ere. Item gehiago, kontratista berandutze-egoeran eratu ahal izateko, ez da beharrezkoa Administrazioak aldeztu aurretik interpelazioa edo agindeia egitea; are gehiago, kontratistak obraren garapenean izan duen jokaeratik ondorioztatutako azken epea betetzen ez dela uste izateak aukera ematen dio Administrazioari kontratua suntsiarazteko.

Kontratua suntsiarazteko orduan, kontuan hartu behar da 110.c) SPKLk ezartzen duenez, behin betiko bermeak erantzun zehatza ematen dio kontratuan jasotako prestazioak behar bezala gauzatzeari, kontratistak kontratazio-organoak eskaintako hobekuntzak barne, kontratista bere betebeharrak (prozedurak) betetzen berandutzeagatik Administrazioari sortutako gastuei. Beraz, kontratazio-prozedurak behin betiko bermea ez eskatzeko gaitzen ez badu, kontratua suntsiaraztean berme hori konfiskatu egin behar da, eta, era berean, prozedura hasi beharko da kontratista kontratatzeke debekuetan gera dadin.

SEIGARRENA.- **Entzunaldiaren izapidetzeari** buruz 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82 artikuluan hau zehazten du:

Artículo 82. Trámite de audiencia.

1. Instruidos los procedimientos, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se pondrán de manifiesto a los interesados o, en su caso, a sus representantes, para lo que se tendrán en cuenta las limitaciones previstas en su caso en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre.

La audiencia a los interesados será anterior a la solicitud del informe del órgano competente para el asesoramiento jurídico o a la solicitud del Dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, en el caso que éstos formaran parte del procedimiento.

2. Los interesados, en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince, podrán alegar y presentar los documentos y justificaciones que estimen pertinentes.

3. Si antes del vencimiento del plazo los interesados manifiestan su decisión de no efectuar alegaciones ni aportar nuevos documentos o justificaciones, se tendrá por realizado el trámite.

4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.

5. En los procedimientos de responsabilidad patrimonial a los que se refiere el artículo 32.9 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, será necesario en todo caso dar audiencia al contratista, notificándole cuantas actuaciones se realicen en el procedimiento, al efecto de que se persone en el mismo, exponga lo que a su derecho convenga y proponga cuantos medios de prueba estime necesarios.

Era berean, entzunaldiaren izapideari buruz 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 82.4 artikuluan hau zehazten du:

4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.

Kasu honetan, interesdunak egokitzen jotzen duen dokumentazioa aurkeztu dezake, dagokion errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, **10 egun balioduneko epean**. Epe hori igarota alegaziorik egongo ez balitz, proposamenarekin ados dagoela ulertuko litzateke. Era berean, emandako epe horretan espresuki adierazi dezake proposamenarekin ados dagoela.

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

Disposición adicional segunda. Competencias en materia de contratación en las Entidades Locales.

1. Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

2. Corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 1.706.223,15 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gutxiago da, baina kontratuaren iraupena bost urtekoa denez (lau urte baino gehiago) **udalbatza da kontratazio organoa**.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkari akzidentalaren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2025eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazábal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENEA.- Onartzea, aurrekarietan adierazitakoaren arabera, AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresari zehapenak aplikatzeko espedienteari hasiera ematea, Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratuan xedatutako baldintzak ez betetzeagatik, zehazki, enpresak Tolosako Udaleko jabetzakoa den ibilgailu bat eta modu eskusiboan Tolosako zerbitzura atxikita dagoen beste ibilgailu bat beste udalerrri batzuetako zerbitzuentzako eskuragarri jartzeagatik. Hori dela eta, azalpen-zatian adierazitakoarekin bat etorritz, aplikatu beharreko zehapena 30.058,43 eurokoa da.

BIGARRENA.- Horren guztiaren ondorioz, AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresari 10 egun balioduneko epea ematea, dagokion jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, egoki deritzon dokumentuak eta justifikazioak alegatzeko egokitzat jotzen badu. Epea amaitu baino lehen interesdunak adierazten badu ez duela alegaziorik edo dokumentu edo justifikazio berririk aurkeztuko, izapidea gauzatutzat joko da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen-proposamena onartzen bada, erabaki horiek jakinaraztea enpresa kontratistari, kontratuaren arduradunari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udaltzako, aho batez, onartu du zehapen-espedita bati hasiera ematea Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko enpresa kontratistari, kontratuaren betebeharrak ez betetzeagatik.

4. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO 2023-2025 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko urtarilaren 22ko irizpena.

IKUSIRIK

2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan zenbait lerro gehitzeko proposamena jaso da.

Batetik, Gizarte Zerbitzuak sailak, **1.10. dirulaguntza lerroa sortzea** proposatu du, 2025 urtean Inmakulada Lanbide Ikastolari ematea aurreikusten den dirulaguntza izenduna txertatzeko.

Dirulaguntza lerroa: 1.10. DEMENTZIA BIZITZEN – IMAKULADA LANBIDE IKASTOLA

Eskumen arloa	Gizarte zerbitzuak.. Gaixotasunaren arreta eta prebentzioa zaintza ikuspuntutik.
Sektore hartzaileak	Dementia gaixotasunak eraginda, hastapeneko faseetan dauden pertsonak eta beren zaintza sarea.
Helburuak	Dementia duten pertsonen autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunetik eta desgaitasunetik eratorritako behar pertsonal eta familiarrei aurrea hartzea eta erantzutea Dementzi ikusaraztea: gizarte sentsibilizatzea Belaunaldien arteko harremanak sortzea adin eta testuinguru soziokultural desberdinetako pertsonen artean Dementia bizitzen proiektuaren boluntarioen sarea sortzea
Lortu nahi diren ondorioak	Dementia duten pertsonen arretarako proiektu pilotu honen eraginkortasuna neurtu, autonomia mailan kalteak areagotzea prebenitzeko arretarako tresna edo metodo berri honekin. Beti ere bakoitzaren zaintza sarearekin elkarlanean, eta zaintzarako gaitasunak indartzeko tresnak eskuragarri jarri.
Egikaritze epea	2025-01-01 – 2025-12-31
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoarekin bat etorri, dirulaguntza zuzenei dagokien tramiteak jarraituko dira
Jarraipena eta ebaluazioa	Dirulaguntza behar bezala zuri beharko du erakunde hartzaileak, horretarako laguntza emateko erabakian zehazten dena zehatz-mehatz betez.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0500.481.13.231.00	IMAKULADA LANBIDE IKASTOLA	Dementzia bizitzen	6.000€	izenduna	6.000€

Bestetik, Kirol sailak, **6.10. dirulaguntza lerroa sortzea** proposatu du, 2025 urteko eliteko kirolarientzako lehia bidezko dirulaguntza txertatzeko.

Dirulaguntza lerroa: 6.10 Eliteko kirolarientzako dirulaguntzak

Eskumen arloa	Kirola eta jarduera fisikoa
Sektore hartzaileak	Eliteko Kirolariak
Helburuak	Uneko kirol banakako modalitateetan lehiatzen diren Tolosako eliteko kirolarientzako dirulaguntzak ematea. Lehiaketak modalitateko kategori altuenean izango dira, txapelketa ofizialetan eta nazioartekoak.
Lortu nahi diren ondorioak	Erakundeetatik finantziaketa nahikoa lortzen ez duten eliteko kirolariek diruz laguntzea, nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua indarrean sartu ondoren oinarriak onartu eta deialdi publikoa egingo da. Jasotako eskaerak ebaluatu eta gero dirulaguntzak onartuko dira. Zuriketa udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan egingo da.
Jarraipena eta ebaluazioa	Kirolariek partehartzen duten lehiaketa maila egiaztatuko du. • Txapelketan partehartzeak dakarren garraio, ostatu eta mantenu gastuak. • Lehia ofizialetan partehartzearen izenemateak.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1000.481.05.341.00	Banakako modalitateetako eliteko kirolariak	Eliteko kirolarientzako dirulaguntzak	3.000	Norgehiagoka	3.000

Jarraitzeko, **Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak** sailak, 7.8.lerroa sortzea proposatu du 2025 urtean LabPaper Tolosari onartzea aurreikusten den dirulaguntza izenduna txertatzeko.

Eskumen arloa	Garapen Ekonomikoa
Sektore hartzaileak	Kimika eta paper industria eta Lanbide Heziketa
Helburuak	Paper-industriak Tolosaren eta eskualdearen garapen ekonomikoan garrantzia eta pisu handia izan du. Tolosaren ildo estrategikoetako bat da Tolosako garapen ekonomikoa sustatzea hiri ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz. Beharrezkoa da enpresek, ikerkuntza zentroek, hezkuntza zentroek eta administrazioak osatzen duten sarea indartzea. LabPaper Tolosa elkarteak zerbitzua ematen dio sektore kimikoari, oro har, eta paperaren eta kartoiaren arloei, bereziki, arlo hauetan diharduten eragileak sustatuz. Era berean, kimika arloko lanbide heziketako ikasleen formazioan funtsezko eragilea da, kolaborazio estua baitu Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuarekin. Horrez gain, elkartearen lanak Tolosa erreferente bihurtzen du paper-industriari dagokionez. Gainera, laborategiko zerbitzu teknikoek gain, elkarteak dibulgazioa, prestakuntza, edo bestelako jarduerak antolatzen ditu herriko ikastetxe zein oro har herritarrei zuzenduak. Beren lana garatu ahal izateko beharrezkoa da laborategiko ekipamendu egokiak izatea.
Lortu nahi diren ondorioak	Kimika eta paper-industriari lotutako enpresen eta enpleguaren sustapena. Lanbide heziketaren sustapena. Kimika eta papergintzari lotutako dibulgazio eskaintza zabaltzea.
Egikaritze epea	2025
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskatera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Hurrengo urteetan bermatu beharko da zehaztutako helburu horietarako erabiliko dela diruz lagundutako ekipoa.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.781.10.430.00	LabPaper Tolosa	Eskualdeko garapen ekonomikoa bultzatzea	5.000,00 €	Izenduna	5.000,00 €

Azkenik, Kontuhartzailak, 2025 urteko aurrekontu proposamenean oinarrituta, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumena atalean, lerro berri bat gehitzea proposatzen du, Olarraingo Lagun Arte Auzo Elkarteari 2025 urtean onartzea aurreikusten den dirulaguntza txertatzeko.

Dirulaguntza lerroa: 2.8. Olarraingo Lagun Artea Auzo Elkarteari dirulaguntza izenduna

Eskumen arloa	Ingurumena eta Landa eremua
Sektore hartzaileak	Landa eremuko Auzo Elkartek
Helburuak	Tolosako eta, oro har, beste herrietako landa auzoek biztanlerik gabe geratzeko arriskua dute eta prozesu horiek ekiditeko oso lagungarriak dira landa auzoetako elkarrekin antolatzen dituzten jarduerak, bizilagunen harremanak sendotzen direlako eta inguruko biztanleak erakartzeko eta auzoa ezagutarazteko baliagarriak direlako. Dirulaguntza honekin alde batetik, landa- auzoa dinamizatuko duten jarduerak egiten lagundu nahi da eta bestetik, jarduera hauek antolatzeko eta elkargune bat izateko beharrezkoa den auzo-ekipamenduaren gastuak ordaintzen lagundu nahi da.
Lortu nahi diren ondorioak	Diruz laguntzen diren jarduerak Tolosako landa auzoak bizirik eta dinamikoagoak izateko ondorioa lortu dute.
Egikaritze epea	2025
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten ala ez. Ondorengo adierazleak hartuko dira kontuan: -Antolatutako ekintzetan parte hartu dutenen kopurua, emakumeen zein gizonen datuak bereizita.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1300.481.13.172.00	Olarraingo Lagun Artea Auzo Elkartea	Landa auzoetako festa eta jarduerak	9.000,00 €	Izenduna	9.000,00 €

KONTUAN HARTURIK

Lehena.-Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.artikuluari adierazten den moduan, Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hori betetzeari.

Bigarrena.-Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.-Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Laugarrena.-Kontuan edukita jasotako proposamenak 2025 urtean zehar ematea proposatzen diren dirulaguntzak direla, beharrezkoa litzateke 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea.

Aurreko guztia aintzat harturik, Kontuhartzaitzako aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2025eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazábal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udallbatza-ren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Lehen.-2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, txosten honetan proposatutako 1.10, 6.10, 7.8 eta 2.8 lerroak txertatzeko proposamena onartzea.

Bigarrena.-Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

5. ONARTZEA HASIERA EMATEA «6.1 SAN KOSME ETA SAN DAMIAN» AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUA OFIZIOZ BERRIKUSTEARI.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko urtarilaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

LEHEN.- Mendizabal Elduayen anai-arrebek, Tolosako Udalean 2023ko irailaren 11ko idatzia aurkeztu zuten, Tolosako HAPOko “6.1 San Kosme eta San Damian” azpieroaren birpartzelazio-proiektua zuzentzeko eskatuz.

BIGARRENA.- 2024ko apirilaren 5ean, Jon Mendizabal Elduayen jaunak beste idatzi bat aurkeztu zuen, “6.1 San Cosme eta San Damian” azpieroaren birpartzelazio-proiektua behin betiko onartzeko erabakiak ofizioz berrikusteko eskatuz, eta “ubicación física de fincas en ámbito urbanístico 6-Santa Clara de Tolosa” izeneko peritu-txostena aurkeztuz.

HIRUGARRENA.- 2024ko apirilaren 25ean, apirilaren 5ean aurkeztutako informazioa osatu zen, “revisión de oficio” izeneko dokumentua ez zelako behar bezala erantsita agertzen udal-erregistroan.

LAUGARRENA.- Eskaeren edukia ikusita, Tolosako Udalak aholkularitza juridikoa eskatu zion Nekane Azarola Martinez abokatuari eta, eskaera horri erantzunez, 2024ko uztailaren 4an, udalean aurkeztu zuen “6.1 San Kosme eta Sam Damian” azpiesparruaren birpartzelazio-proiektuari Mendizabal Elduayen familiak egindako eskaerei buruzko txosten juridikoa.

KONTUAN HARTURIK

4. AZTERKETA JURIDIkoa

2025ko urtarrilaren 17n hirigintzako tekniko juridikoak txosten juridikoa (MAU25005) egin zuen eta, besteak beste, honakoa jaso zuen:

<<LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. Eta 4. Artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Gaiaren inguruan egiten den txosten juridikoa:

1.- Administrazioaren kabuz berrikusteko prozeduraren helburua da ordenamendu juridikotik kanpo uztea erabateko deuseztasuna duten administrazio-egintzak eta -xedapenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan jasotako edozein arrazoiengatik. Era berean, administrazio-bidea amaitu duten edo epe barruan errekurritu ez diren egintzak bakarrik araztu ahal izango dira ofiziozko berrikuspenaren bitartez.

Erabateko deuseztasuna erabakitzeko prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. Artikuluan arautzen da.

[Prozedurari dagokionez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 34/2019 Irizpenak honako hau adierazi zuen: «*En cuanto al procedimiento, no existe una especificidad normativa en la actual redacción del artículo 106 LPAC, por lo que la producción del acto revisorio debe efectuarse conforme a las previsiones del procedimiento administrativo común, con la especialidad apuntada del dictamen preceptivo y habilitante de esta Comisión*»].

[Justizia Auzitegi Nagusiak, behin eta berriz, Auzitegi Gorenak 1984ko otsailaren 20an emandako epaiaren bermearekin (306442/1984), ofiziozko berrikuspen-prozeduraren barruan bi fase bereizten dituzte: «la **primera**, que comprende la apertura del expediente revisorio con aportación de informes técnicos y asesoramientos jurídicos, audiencia al interesado y resolución en la que la Administración racional y jurídicamente acredite, en su caso, que tras el examen realizado ha llegado a la conclusión de que el acto no adolece de ningún vicio de nulidad absoluta, y la **segunda**, que incluye la solicitud del dictamen al Consejo de Estado u órgano paralelo de las Comunidades Autónomas y la decisión de anular o no el acto, a la vista de dicho informe» La primera fase debe contener, como mínimo, los siguientes actos de instrucción: la apertura, la elaboración de informes técnicos —si fueran precisos—, informes jurídicos y el trámite de audiencia a los interesados, y una eventual resolución de inadmisión —cuando no se base en alguna de las causas de nulidad del artículo 47—, para pasar a continuación a la segunda fase resolutive del procedimiento que incluye el dictamen del órgano consultivo»].

[Ildo beretik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2018ko urriaren 17ko 149/2018 Irizpenaren bidez, honako hau adierazi zuen: «Por lo demás, como venimos reiterando, la jurisprudencia del Tribunal Supremo, por todas la Sentencia de 12 de diciembre de 2001 (RJ 2002/1122), especifica que “... ha distinguido tradicionalmente dos ase sen los procedimientos de revisión de oficio. La primera comprende la apertura de un expediente, tras los trámites pertinentes, la Administración determina «prima facie» si el acto o actos cuya revisión se pide adolecen o no de los vicios que determinarían su revisión. En caso de que la conclusión sea afirmativa se abre la segunda fase que incluye la solicitud de dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo de la Comunidad Autónoma equiparable a él y la decisión de anular o no el acto de que se trate, según el dictamen que se emita”.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 110. Artikuluak honako hau ezartzen du: «Las facultades de revisión establecidas en este Capítulo, no podrán ser ejercidas cuando por prescripción de acciones, por el tiempo transcurrido o por otras circunstancias, su ejercicio resulte contrario a la equidad, a la buena fe, al derecho de los particulares o a las leyes».

Noiz edo noiz, aholku-kontseiluen irizpenek ikusi dute «beste inguruabar batzuk» gertatzen direla, berrikuspenera eragozten dutenak, ekitatearen, fede onaren, partikularren zuzenbidearen edo legeen aurkakoak direlako.

[Ildo horretatik jo zuen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak otsailaren 7ko 16/2018 Irizpenean: «La posibilidad legal atribuida a las administraciones públicas de revisar de oficio sus propios actos en cualquier momento es una facultad excepcional que quiebra la seguridad jurídica y queda, por ello, reservada a supuestos de quebrantamiento del derecho extraordinariamente graves, ante los cuales dicha seguridad jurídica debe ceder, por resultar de todo punto inadmisibile su presencia en el ordenamiento»].

2.- Hau da aplikatu beharreko legeria:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1, 106., 108. Eta 110. Artikuluak.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32.2 eta 34.1 artikuluak.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.g), 22.2.j), 53., 63.1.b) eta 110. Artikuluak.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 2.1.b), 3.1.g), 26.1 eta 27.2 artikuluak.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 16., 18. Eta 28.-32. Artikuluak.

3.- Administrazio publikoek, edozein unetan, beren ekimenez edo interesdunak eskatuta, eta Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, aldeko irizpena eman ondoren, deuseztat joko dituzte, ofizioz, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan errekurritu ez direnak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Ofizioz berrikusteko eskumena duen organoak berrikuspen-prozedura hasi ahal izango du, edo interesdunek egindako eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki ahal izango du, arrazoituta, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emailearen irizpena eskatu beharrik gabe, baldin eta eskaera horiek ez badira oinarritzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan jasotako deuseztasun-kausaren batean, edo argi eta garbi funtsik ez badute, bai eta, funtsari dagokionez, funtsean berdinak diren beste eskaera batzuk ezetsi badira ere.

4.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 63.1.b) artikuluak ezartzen duenez, administrazioarekiko auzi-prozesuaren araubide orokorrean legitimatutako subjektuekin batera, Ordenamendu Juridikoa hausten duten toki-erakundearen egintzak eta erabakiak aurkaratu ahal izango dituzte egintza eta erabaki horien aurka bozkatu duten korporazioetako kideek.

5.- Administrazio publikoek, xedapen edo egintza baten deuseztasuna deklaratzear, ebazpen berean ezarri ahal izango dituzte interesdunei aitortu beharreko kalte-ordainak, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32.2 eta 34.1 artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira, hargatik eragotzi gabe, xedapen bat izanik, hura aplikatuz emandako egintza irmoek bere horretan irautea.

6.- Prozedura ofizioz hasi bada, hasi denetik sei hilabeteko epea igarotzen bada ebazpenik eman gabe, prozedura iraungi egingo da. Prozedura interesdunak eskatuta hasi bada, ordea, ezetsizat jo ahal izango da administrazio-isiltasunez.

7.- Honako hau da egintza deusez bat ofizioz berrikusteko prozedura:

A. Korporazioari jakinarazten bazaio administrazio-egintza bat erabateko deuseztasun-kausa batean sartuta egon daitekeela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen delako, osoko bilkurak, dagokion informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, ofizioz berrikusteko espedientea hasia erabakiko du, eta, hala badagokio, egintzaren betearazpena etengo du kalte konponezinak edo konpongaitzak sor baditzake, edo interesdunek egindako eskabideak izapidetzeko ez onartzea deklaratu du, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso beharrik izan gabe, eskaera horiek urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan jasotako deuseztasun-kausaren batean oinarritzen ez direnean, edo argi eta garbi oinarririk ez dutenean, bai eta funtsean berdinak diren beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita daudenean ere.

[Auzitegi Gorenaren 2022ko abenduaren 13ko epaiaren arabera, 1646/2022 Ebazpena (4472/2020), udalaren osoko bilkura da araubide erkideko toki-korporazioetako presidenteen egintza deusezen berrikuspenez arduratzeko organo eskuduna.

Auzitegi Gorenaren kasazio-irizpide gisa, Osoko Bilkura ezartzen da ofiziozko berrikuspenaz arduratzeko organo eskudun gisa, eta, beraz, prozeduraren une honetan hura izapidetzeko ez onartzeko aukera dagoenez, Alkatetzak ezingo luke egintza hori onartu, behin betiko onespenera buruz ebazteko eskumena duen organoa eskaera ez onartzeko ere badelako, interesdunaren eskubideari eragiten dion erabakia delako, funtsari buruzko erabakia.

Hori guztia oinarri hartuta, esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan Udalbatzaren Osoko Bilkura dela izapidetzeko hasteko eta ez onartzeko organo eskuduna, eta ez Alkatetza].

B. Erabat deuseza den egintzaren ofiziozko berrikuspena izapidetzeko onartzen ez bada, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunei jakinaraziko zaie eta jarduketak artxibatu egingo dira.

Prozedura hasiz gero, berrikusi beharreko egintzarekin lotuta beharrezkotzat jotzen diren adina txosten eskatu eta eman ahal izango dira, eta interesdunei entzunaldi-izapidea emango zaie, hamar eta hamabost egun bitartean, egokitutako jotzen dituzten dokumentuak eta justifikazioak alegatu eta aurkez ditzaten.

C. Interesdunei entzuteko izapidea amaitu ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek txostena egin beharko dute aurkeztu ahal izan diren alegazioei buruz.

D. Txosten horren ondoren, ebazpen-proposamenaren txostena egingo da, eta nahitaezko irizpena eskatuko zaio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.g) artikuluan xedatutakoaren arabera.

E. Aholku Batzorde Juridikoari igorriko zaion ebazpen-proposamenaren txostena idatzi ondoren, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, hala badagokio, prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea etetea erabakiko du, eta interesdunei etete horren berri emango zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

F. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 26. Artikulua arabera, Batzordeak irizpena eman beharko du entzunaldia aurreikusten duen xedapenak ezartzen duen epean, edo, bestela, bi hilabeteko epean.

G. Aholku Batzorde Juridikoaren aldeko irizpena jaso ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie jaso dutela, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 22.1.d) artikulua arabera, eta, haren edukiaren arabera, osoko bilkurak ebatziko du espedientea, Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren.

H. Osoko Bilkuraren erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, eta kontsultarako aurkeztu den gaian hartutako erabakia batzordeko idazkariari jakinaraziko zaio, onartu edo argitaratu eta 15 eguneko epean, kasuen arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30. Artikuluaekin eta irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onartutako Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamenduaren 34. Artikuluaekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.- Honako hirigintza-aurrekariak:

1.- Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion “6.1 San Kosme eta San Damian” azpieremuaren egikaritze-unitatea ituntzeko hitzarmen-proposamenari. ***Erabaki hori 2018ko otsailaren 15eko GAOn (33. Zk.) argitaratu zen.***

Hitzarmenaren lehenengo estipulazioan honako hau adierazten da:

“Lehena.- Bista Alai S.A sozietatea, 6.1 San Kosme eta San Damian azpiesparruko lursail guztien jabe bakar den aldetik, bere gain hartzen ditu ekainaren 30eko 2/2006 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 160 eta 165.artikuluen bitartean itun-batzordeentzat arautzen dituen betebeharrak”.

2.- Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 9an, behin betiko onartu zuen hitzarmen hori. ***Erabakia 2018ko irailaren 26ko GAO on argitaratu zen (186. Zk.).***

3.- 2019ko abenduaren 30eko Alkatetzaren 2180. Dekretuaren bidez, “6.1 San Cosme eta San Damian” azpieremuaren birpartzelazio-proiektua hasieraz onartu zen, jendaurrean jarritz 20 eguneko epean. **Jabe bakarraren birpartzelazio gisa izapidetu zen**, Bista Alai Sak beti adierazi baitu, Udalaren aurrean, jabe bakarra dela. ***2018ko otsailaren 15eko GAO on argitaratu zen (33. Zk.).***

Tokiko Gobernu Batzordearen 2020ko maiatzaren 12ko erabakiaren bidez, birpartzelatze-proiektua behin betiko onartu zen. ***2020ko ekainaren 24ko GAO on argitaratu zen (118. Zk.).***

4.- Iñaki Soraluze jaunak, Bista Alai SA merkataritza-sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, eskatu zuen “6.1 San Cosme eta San Damian” zenbakiko borondatezko birpartzelazio-proiektua berriro onartzeko, akats bat zegoelako hasierako 3. Partzelaren erregistro-finketan.

Aldatutako proiektuan akats bat zegoela aurkeztutako finketan justifikatzen zuten, lau zirela, ez hiru, 7446 zenbakidun erregistro-finka ere sartuta baitago. Finka horrek kargarik ez zuela eta Bista Alai Saren jabetzakoa zela egiaztatzen zuen erregistro-ziurtagiria aurkeztuz.

2020ko abenduaren 11ko Alkatetzaren 2020 Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion birpartzelatze-proiektuaren aldaketari, eta jendaurrean jarri zen 20 eguneko epean (***2020ko abenduaren 31ko GAO, 250. Zk.***). Tokiko Gobernu Batzordeak 2021eko otsailaren 9an behin betiko onarpena eman zion (***2021eko martxoaren 16ko GAO, 50. Zk.***).

5.- 2022ko maiatzaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarrak, izapidetu ondoren, behin betiko onartu zuen urbanizazio-proiektua. GAO, 104. Zk., 2022ko ekainaren 2koa.

6.- 2022ko urriaren 13ko 2022/2530 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, Bista Alaia Sari 50 etxebizitza eraikitzeko eraikuntza-lizentzia eman zitzaion.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalean Mendizabal Elduayen sendiak aurkeztutako **eskaeren alderdi aipagarriak**:

Udalean aurkeztutako 2023ko irailaren 11ko idatzian honako hau nabarmentzen da:

1.- Birpartzelazio-proiektuari jatorrizko 4. Finka, ***7446. Erregistro-zenbakiko finka, BISTAALAIA Sarena, erregistroko deskribapenaren arabera, 6.1 azpieremuan dago, katastroko erreferentziaren arabera berriz 6.2 azpieremuan (7576195 finka. 3032789 D finka).***

2.- Mendizabal Elduayen familiak **7445 zenbakiko erregistro-finkaren** jabeak dira; 447 m2-ko azalera du, 7446 zenbakiko erregistro-finkatik banandu zena, eta **6.1 azpieremuan dago, baina katastroaren arabera** (7576194, 5044750A zenbakiko katastro-finka) **6.2 azpieremuan dagoela azaltzen da**. Idatzian adierazten dute katastroko akats nabarmena dela.

3.- BISTA ALAI Sak ondo zekien Mendizabal Elduayen anaiek 6.1 azpieremuan lursailak zituztela, eta Tolosako Udalarari ezkutatu diote.

2024ko apirilaren 3ko idatzian (2024ko apirilaren 25ean erregistrotik aurkeztua), honako hau adierazten da:

1.- Tolosako Udalak Birpartzelazio Proiektuaren inguruan hartutako erabakiak zerrendatzen dituzte, eta behin eta berriz adierazten dute erabaki horiek **ez zitzaizkiola Mendizabal Elduayen familiari jakinarazi**.

2.- Adierazi dute akats bat egon dela; izan ere, birpartzelatze-proiektuan 7445 zenbakiko erregistro-partzela ez zelako sartu, eta fisikoki 6.1 azpieremuan barruan dagoela adieraziz. Esteban García Marquina arkitektoak idatzitako txosten teknikoa erantsi dute.

3.- Adierazi dute ezin dela aztertu birpartzelatze-proiektua 6.1 azpieremuaren errealitate fisikora egokitzen den, Bista Alai Sak eremu osoa induskatu duelako, eta birpartzelatze-proiektua **katastroari egokitzen den ere ezin dela aztertu, ez delako zuzena**. Katastroa ez dator bat ez errealitatearekin ez erregistroarekin.

4.- 7445 zenbakiko erregistro-finkaren mugak kontuan hartuta, 6.1 azpieremuan baino ezin da kokatu oso-osorik. Ondorioz, lursail hori azpieremuan ez sartzeagatik, kendu egin zaizkie eskubideak.

Peritu-txostena aurkeztu dute 7445 zenbakiko erregistro-finka 6.1 azpieremuan sartuta dagoela egiaztatzeko.

5.- Ondorioz, frogatutzat jotzen dute Mendizabal Elduayen familia 6.1 azpieremuaren jabeak direla eta, beraz, juridikoki honako hau argudiatzen dute:

- 2/2006 Legearen 42. Artikulua, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 71., 164. Eta 172. Artikuluak eta 1093/1997 Errege Dekretuaren 4. Artikulua urratzen dira, erregistro-finka guztiak ez baitira sartu birpartzelatze-proiektuan, eta, beraz, onurak eta kargak berdinbanatzeko oinarritzko arauaren aurka doa.

- Bere jabetza “*konfiskatu*” egin da. Finka oraindik ere badago jabetza-erregistroan, baina fisikoki Bista Alai Sak okupatu du eta bere ondarea bihurtuz. Espainiako Konstituzioaren 33. Artikulua urratu da.

- Birpartzelazio-proiektua jabe bakar eta borondatezko gisa izapidetu zen, nahitaezko gisa izapidetu behar zenean. Berariaz honako hau adierazten du:

*“... **la mercantil Bista Alaia S.A se benefició de un “atajo” para acelerar su desarrollo urbanístico y apropiarse del espacio físico que ocupa la parcela 7445, patrimonializando un aprovechamiento que no le correspondía en derecho**”.*

- 6.1 azpieremua osatzen duten finken zerrenda behar bezala kalibratu izan balu, eta Mendizabal familiaren jabetzako 7445 partzela haren barruan zegoela onartu izan balitz, prozedura beste bat izango zen.

- Haien ustez, irregulartasun guztiak direla-eta, Tolosako Udalak ofiziozko berrikuspen-espedita bat hasi behar du, berariaz adierazita:

“En definitiva, la familia Mendizabal considera, dicho con todo el respeto, que en el presente caso se dan los requisitos para que el ayuntamiento de Tolosa inicie un expediente de revisión de oficio de actos nulos de pleno derecho según el artículo 106 de la LPAC y en su defecto y de manera subsidiaria, una declaración de lesividad de actos anulables según el artículo 107 del mismo texto legal”.

- 6.1 San Cosme eta San Damian azpieremuaren birpartzelazio-proiektua behin betiko onartzeko egintzak ofizioz berrikusteko espedita hasteko eta azpieremuaren hirigintza-garapena geldiarazteko eskatzen dute.

BOSGARRENA.- Nekane Azarola Martinez abokatuak Tolosako Udalak hala eskaturik egindako txostenean jasotako honako **azterketa juridikoa**:

«Lehenik eta behin, adierazi behar da “6.1 San Kosme eta San Damian azpieremua” antolatu eta kudeatu dela hirigintza-legerian eskatutako plangintza- eta kudeaketa-tresna guztiak onartuta: Xehetasun-Azterketa, HJP, ituntze hitzarmena, birpartzelazio-proiektua eta urbanizazio-proiektua.

Udalan bultzatutako hirigintza-prozedura guztietan, Bista Alai SA enpresak **jabe bakar gisa** jardun du, eta ez da alegaziorik aurkeztu emandako jendaurreko informazio-aldietan. Ondorioz, Birpartzelazio-Proiektua izapidetu bitartean, **Tolosako Udalak ez zekien jatorrizko 4. Partzelaren zati baten titulartasuna auzigaia zela**.

Bista Alai Sarekin gauzatutako itun-hitzarmenean, oinarri juridikoetan, berariaz honako hau adierazten zen:

“Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 160.2 artikuluan arautzen du itun-sistemaz jardun ahal izateko beharrezkoa izango dela, betiere, itun bat sinatzea eta itun horretan gutxienez lurzoruaren jabetzaren % 50 baino gehiagok bere egitea itun-batzarra osatzeko konpromisoa, jarduketaren onurak eta kargak ekitatez

banatzekoa, aurreikusitako urbanizazio-lanak egitekoa eta gerora Udalari nahitaez laga beharreko ondasunak lagatzekoa. Jabeek beraiek aurkeztu behar diote ituna Udalari.

Adierazitako Lege horren 160.5 artikulua arautzen du ez dela itun Batzordea eratzeke premiarik izango, **baldin eta azalera guztia jabe bakar baten jabetzakoa baldin bada**. Hori gertatzen denean, jabeak hartuko ditu bere gain Legeak batzordeari ezartzen dizkion betebeharrak eta hark izenpetuko du dagokion ituna.

Aintzat hartuta «Bista Alai, SA» sozietatea dela adierazitako hirigintza-esparruak dituen lursail guztien jabea, ez dago itun Batzordea eratzeke premiarik, eta jabe bakar horrek hartu behar ditu bere gain batzorde horri dagozkion betebeharrak, eta hark izenpetu behar du ituna Administrazioarekin”.

Ondorioz, Tolosako Udalean egindako izapide guztietan, BISTA ALAI Sak jabe bakar gisa jardun du, eta ez du jabetza-gatazkarik adierazi.

Jakina, Tolosako Udalak jakin izan balu eremu horretan jabe bat baino gehiago zegoela, Hitzarmen Batzordea eratzea eskatuko zukeen, edo, are gehiago, desadostasun hori birpartzelatze-espeditentea izapidetzean planteatu izan balitz, titulartasun zalantzarritzat edo auzizkotzat joko zatekeen.

Illo horretan, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 103. Artikuluak honako hau ezartzen du:

- “1. Los propietarios y titulares de derechos afectados por la reparcelación **están obligados a exhibir los títulos que posean y declarar las situaciones jurídicas que conozcan y afecten a sus fincas.**
2. **La omisión, error o falsedad en estas declaraciones no podrá afectar el resultado objetivo de la reparcelación. Si se apreciase dolo o negligencia grave, podrá exigirse la responsabilidad civil o penal que corresponda.**
3. En caso de discordancia entre los títulos y la realidad física de las fincas, prevalecerá ésta sobre aquéllos en el expediente de reparcelación”.
4. **Si la discrepancia se plantea en el orden de la titularidad de los derechos, la resolución definitiva corresponde a los tribunales ordinarios.** El proyecto de reparcelación se limitará, en tal caso, a calificar la titularidad de dudosa o litigiosa, según proceda. La Administración actuante asumirá la representación de los derechos e intereses de esas titularidades a efectos de la tramitación del expediente. Los gastos que sean imputables a las titularidades referidas podrán hacerse efectivos por la vía de apremio en caso de impago”.

Gainera, Ituntze Hitzarmena, HJP eta birpartzelazio-proiektua izapidetu bitartean, Mendizabal Elduayen anai-arrebek ez zuten alegaziorik aurkeztu, eta, beraz, Tolosako Udalak Birpartzelazio Proiektuan **ezin izan zuen izendatu lursaila auzigaia bezala**, Hirigintza Kudeaketako Araudiaren (*Reglamento de Gestión Urbanística R.G.U*) 103.4 artikuluan ezarritakoa betez.

Gaur egun, birpartzelazio-proiektua jabetza-erregistroan inskribatuta eta eraikitzeke lizentzia emanda dagoenez, titulartasun gatazka bat planteatu da Tolosako Udalean, eta auzitegi arruntei dagokie gatazka hori ebaztea.

Gainera, idatzian bertan adierazten denez, Bista Alai Sak bere jabetzako lursail bat okupatu du fisikoki, bere jabetza “konfiskatu” du, “*hirigintza-lasterbide*” bat erabiliz 7445 lursailak hartzen duen espazio fisikoaz jabetzeko. Gainera, aitortzen du bere jabetzako erregistro-partzela (7445) ere ez dagoela ondo jasota katastroan.

Beraz, aurkeztutako peritu-txostenean erregistro-finka juridikoei buruz egindako azterketa eta 2024ko apirilaren 3ko idatzian egindako baieztapenak (*apropiación indebida*) kontuan hartuta, **gatazka pribatu baten aurrean gaude**, Tolosako Udalaren eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenak gainditzeko dituen.

Illo horretatik, Auzitegi Gorenak 2008ko ekainaren 4ko epaian honela dio:

“FUNDAMENTO DE DERECHO.

QUINTO .-

(.....) En segundo término la recurrente, demandante en la instancia, articula su segundo motivo con base en que por la Sala se desestimó su pretensión declaratoria de su titularidad de 11.879 m2 en el Proyecto de Compensación, con lo que, según expone, vulneró el artículo 3 de la LRJCA.

*Tampoco este segundo motivo puede prosperar ya que el precepto que se considera infringido lo que expresamente dispone en su apartado a) es que **“No corresponden al orden jurisdiccional contencioso-administrativo: a) Las cuestiones expresamente atribuidas a los órdenes jurisdiccionales civil, penal y social, aunque estén relacionadas con la actividad de la Administración pública”**.*

*Por ello, acierta la Sala de instancia cuando declina pronunciarse sobre la titularidad de la finca que la demandante en la instancia manifiesta que acredita mediante escritura pública e inscripción registral, por tratarse, efectivamente, de una cuestión de la competencia de la jurisdicción civil, ya que ni tales circunstancias, en las que la recurrente insiste, ni el pronunciamiento del Juzgado de Primera Instancia de Dos Hermanas ---que no entró a conocer del fondo de la cuestión por prescripción de la acción ejercitada---, pueden justificar la vulneración de las reglas de distribución de los distintos órdenes jurisdiccionales **ni a obligar a este orden jurisdiccional a pronunciarse respecto de una cuestión que gira en torno a la titularidad de unos terrenos y a su auténtica superficie y delimitación.** (...)*

SEXTA.-

(...) En síntesis, lo que los recurrentes plantean, con la finalidad de que dejemos sin efecto la anulación llevada a cabo por la sentencia de instancia del Proyecto de Compensación de la Unidad de Ejecución que nos ocupa, es que aceptemos que la actuación llevada a cabo por la Gerencia de Urbanismo del Ayuntamiento de Sevilla ---y ratificada en alzada por Acuerdo del Pleno del mismo- -- no ha sido una actuación en la que se ha dirimido una cuestión jurídica en relación con la titularidad de finca o terrenos de la entidad demandante aportados a la Junta de Compensación con respaldo documental y registral, sino que, simplemente, con la decisión adoptada, se ha llevado a cabo una comprobación fáctica en relación con la citada finca, limitándose, tan solo, a constatar su ubicación, en gran medida, fuera del ámbito de la Unidad de Ejecución.

Esto es, **mantienen los recurrentes que citados Acuerdos se han limitado a señalar que la registral de la demandante en la instancia no se encuentra en la Unidad de Ejecución (o, todo lo mas, que solo cuenta con 1.182 m2 en la misma) pero sin tomar ninguna determinación sobre su propiedad**, pues se ha limitado a concretar las fincas que se encuentran en el ámbito de la Unidad, identificándolas con la realidad previo contraste con los títulos aportados, de conformidad con el artículo 103.3 del citado RGU. Por ello, la Gerencia y el Ayuntamiento simplemente ha hecho uso de las potestades que le atribuye el artículo 103.3 RGU sin arrogarse las atribuciones que a los tribunales civiles encomienda el apartado 4 del mismo artículo, sin tener, por tanto, que calificar la propiedad como dudosa o litigiosa al no concurrir ninguno de los supuestos contemplados en el artículo 10 del Reglamento sobre inscripción en el Registro de la Propiedad de actos de naturaleza urbanística, aprobado por Real Decreto 1093/1997, de 4 de julio.

Los motivos no pueden prosperar, pues, como con acierto expone la sentencia de instancia, la actuación llevada a cabo por la Administración urbanística municipal de Sevilla ---con base en el documento elaborado por el Secretario de la Junta de Compensación con el asesoramiento técnico que consta en autos--- **es un claro enjuiciamiento jurídico en relación con el origen registral y fáctico de las fincas registrales números 4508 y 13384, sobre las sucesivas transmisiones de la mismas, sobre sus respectivas extensiones, sobre su concreta ubicación y sobre las diversas incidencias que sobre ellas mismas han tenido diversos acontecimientos ---fácticos y jurídicos--- con las mismas relacionados; en el fondo, pues, lo realizado con tan encomiable actuación ha sido una labor propia de los Tribunales de Justicia, y, en concreto, del orden jurisdiccional civil**, pues, como ya expusimos al resolver un motivo anterior, también a nosotros nos está vedado llevar a cabo un pronunciamiento en dicho sentido.

Para ello, tendríamos que partir de la realidad registral de ambas fincas, examinar la historia registral de cada una, contrastar lo anterior con la realidad fáctica del terreno, determinar los respectivos linderos, y, en resumen, llevar a cabo un pronunciamiento que ---por mor del reparto competencial de jurisdicciones--- nos está vedado llevar a cabo. **La actuación, pues, realizada por la Gerencia y el Ayuntamiento de Sevilla no es ---como se pretende--- una simple cuestión de hecho consistente en declarar que gran parte de la finca de la demandante no se encuentra situada en el ámbito de la Unidad de Ejecución de Bellavista, pues tal decisión va precedida de un proceso deductivo y de una conclusión que debemos situar en el terreno de los conceptos, y de la eficacia, de carácter jurídico**. No olvidemos que, en el supuesto que analizamos, encontrándose ambas fincas inscritas en el Registro de la Propiedad, con su correspondiente cabida y extensión, a través de los Acuerdos anulados se procedió a ampliar la cabida de una y reducir ---en gran medida--- la otra con base en la argumentación de que el resto no se ubicaba en la Unidad de Ejecución, según el informe elaborado deducía tras el análisis de la historia registral de ambas fincas, llegando a efectuar valoraciones que podrían estar en contradicción con la propia realidad registral.

No estamos, pues, en el supuesto del apartado 3 del artículo 103 del RGU ---pues no estamos ante una simple cuestión de discordancia entre los títulos registrales--- **sino en un supuesto de contradicción entre dos inscripciones registrales, sin que, por ello, podamos, desde la perspectiva urbanística que nos legitima, efectuar pronunciamiento alguno que altere la estabilidad y seguridad propia de las inscripciones registrales, pues solo los Tribunales del orden civil cuentan con competencia para ello**. Nos encontramos, mas bien, en uno de los supuestos que se contemplan en el apartado 4 del dicho artículo 103 del RGU, esto es, ante

una discrepancia “en orden a la titularidad de los derechos”, cuya resolución definitiva, según se expresa, “corresponde a los Tribunales ordinarios”. Por ello, como bien razona la sentencia de instancia el Proyecto de Compensación debió limitarse a “calificar la titularidad de dudosa o litigiosa, según proceda”, asumiendo la titularidad de los derechos a los efectos de la tramitación del expediente. Esto es, lo acontecido en el supuesto de “autos, no es tanto una discrepancia entre la titularidad documental pública y la realidad física, resuelta por el artículo 103.3 del RGU, ni siquiera una cuestión de linderos, sino que se está ante una auténtica discrepancia sobre la titularidad de los derechos, o, dicho de otra forma, ante una cuestión de titularidad dominical ya que lo discutido no es tanto la concreción de la superficie de determinadas fincas, sino su titularidad, y por tanto una cuestión de propiedad.

Beraz, aztertzen ari garen gaiari Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren (HKA) 103. Artikuluan eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian ezarritakoa aplikatuz, honako hau adierazi behar da:

- 1.- Jabetza-deklarazioetan eta egoera juridikoetan omisioak, akatsak edo/eta faltsutasunak, EZ diote eragiten birpartzelazio-proiektuaren emaitzari, adierazpen horiek egiten dituen erantzulea izanez. HKAREN 103.1 eta 2 artikulua.
- 2.- Tolosako Udalak eta administrazioarekiko-auzitegiek ez dute eskumenik jabetza-alderdiei buruz erabakitzeke; jurisdikzio zibileko auzitegiei dagokie.
- 3.- Desadostasun hori birpartzelazio-proiektua **izapidetzean** planteatu izan balitz, Tolosako Udalak Hirigintza Kudeaketako Araudiaren 103.4 artikuluan titulartasun auzigai bezala kalifikatuko zukeen, titulartasun horren eskubide eta interesen ordezkaritza bere gain hartuz, **espedienteaz izapidetzeko**. Hala ere, **Tolosako Udalak ez zuen jabetza gatazkaren berri izan hirigintza-dokumentuak izapidetu bitartean**.
- 4.- Horrenbestez, Mendizabal Elduyen anai-arrebek BISTA ALAI Sari erantzukizunak zuzenean eskatu beharko dizkiote, haien eskubideak baliaraziz auzitegietan.

Azkenik, azpimarratu behar da Tolosako Udalak birpartzelazio-proiektua izapidetu zuela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 43. Artikulua betez, erregistroko titularrei jakinaraziz, **Udalaren aurrean jabe bakarra BISTA ALAI SA baitzen**.

Azaldutako guztiagatik, Tolosako Udalak 6.1 San Cosme eta San Damian azpieremuaren kudeaketa bultzatu zuen jabe bakar batekin, erabakiak hartuta eta hirigintza-legerian ezarritako prozedurari jarraikiz. Beraz, udal-ebazpenek ez dute deuseztasun edo deuseztagarritasun-akatsik.

Ondorioz, juridikoki ez da egokia San Cosme eta San Damian 6.1 azpieremuaren Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzeko erabakiak ofizioz berrikusteko espedienteaz bultzatzea>>.

ONDORIOAK

Kontuan izanik aurrekariak, aplikatu beharreko lege-xedapenak zein Nekane Azarola Martinez abokatuak, Tolosako Udalak eskaturik, egindako txosten juridikoan jasotako arrazoiketa eta proposatutako ondorioa; **aintzat harturik, ordea, 39/2015 Legeko 106.3 artikuluan zehaztutakoa, EZ DA ARRAZOI NAHIKORIK IKUSTEN MENDIZABAL ELDUAYEN SENDIAK EGINDAKO ESKAERA EZ ONARTZEKO**, beraz, hauxe da proposatzen dudana:

LEHENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2021eko otsailaren 9an, behin betikoz onartutako «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua (2021/03/16 GAO, 50. Zk.) ofizioz berrikusteko prozedura hastea; aintzat harturik Tolosako Udalean, 2023ko irailaren 11ean, 2024ko apirilaren 5ean zein 25ean, Dolores Elduayen Sorondo eta Jon, Igor, Josu eta Nekane Mendizabal Elduayen anai-arrebek aurkeztutako eskaeretan jasotakoa.

BIGARRENA.- Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea, hamabost eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten».

Aurreko guztia aintzat harturik, Hirigintza Saileko teknikari juridikoaren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzorde Informatiboak, 2025eko urtarilaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi eta Aitor Agirresarobe Murgi.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2021eko otsailaren 9an, behin betikoz onartutako «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua (2021/03/16 GAO, 50. Zk.) OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURA HASTEAN; aintzat harturik Tolosako Udalean, 2023ko irailaren 11ean, 2024ko apirilaren 5ean zein 25ean, Dolores Elduayen Sorondo eta Jon, Igor, Josu eta Nekane Mendizabal Elduayen anai-arrebek aurkeztutako eskaeretan jasotakoa.

BIGARRENA.- Alegazio-aldia amaitutakoan eta dagokion udal teknikariaren txostena eginda, espediente osoa Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari igortzea; dagokion legezko txostena egin dezan.

HIRUGARRENA.- Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea, hamabost eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Aurkako Botoak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du hasiera ematea «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko birpartzelazio-proiektua ofizioz berrikusteari.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Besterik gabe, 19:05ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARI AKZIDENTALA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IPLE0001-2025/01/30eko akta/2025/01/30eko akta ()